



Mikrofilm Short Festival eta Gaurik Laburrena egingo dituzte egunotan, Plentzian eta Algortan ▶11

Haurren Hiriaz berba egiteko aukera eduki dugu Francesco Tonucci pedagogo italiarragaz. Leioan egon da UmHerri15 jardunaldietan ▶16



hiruka

Uribe Kostako astekaria



23. zenbakia

2015eko
uztailaren 2tik
uztailaren 8ra arte



Goi-Alde, 50 urtez!

Erandiogoikoko dantzariak urtemugaren eta historiaren berri eman digute ▶22



KIROLAK GETXO

Arenas, historikoa!

Arenas futbol-talde historikoak historia egin du berriro ere. 35 urteren ondoren Bigarren B Mailara bueltatuko da, SD Logroñes 4-2 irabazi ostean. Jon Perez «Bolo» entrenatzaileak 15 hilabeteetan lortu du balentria. Getxo ere igoko da, Hirugarren Mailara. ▶18

HERRIZ HERRI PLENTZIA

Historia berrikusiz

Plentzia eta Uribe Kosta-Butroeko Tokiko Historia jardunaldien 8. ekitaldia egingo dute hilaren 7an eta 8an. ▶10

KULTURA GETXO

Bertso Jaialdi Mundiala

Udako maratolari jarraituz, hilaren 8an egundoko bertso-saioa egingo dute Algortako Bihotz Alai plazan. ▶14

Leioako Udalak utzitako lokala erabiltzen jarraituko du Andrak elkarteak, bien arteko hitzarmena berriztatu ostean. ▶6

Lemoizko Udalak ikastaro ugari antolatu ditu uztaileko: *zumba*, *pilates*, gimnasia, yoga eta meditazioa. ▶8

Joan den ikasturtean euskara ikasi izateagatik, diru-laguntzak eskatzeko epea zabaldu du Gorlizko Udalak. ▶8

Umeek eskolarako bidea modu autonomo eta seguruan egiteko proiektua ipini du martxan Urdulizko Udalak. ▶9



Maratila

ITZIAR
LARRAZABAL GARDEAZABAL
ELAko eskualde-arduraduna

Gizarte- prestazioen sistema egoki bat

Gizarte-prestazioen sistema egoki bat kohesio soziala izateko funtsezko osagaia da. Prestazio sistema honek izan beharko luke gero eta handiagoak diren gizarteko sektorerik ahulenekiko konpromiso kolektiboaren oinarrietako bat. Alabaina, politikak ez dira helburu horrekin erabakitzen, kezka nagusia murriztea eta gastuari eustea da, baita gizarteko kolektiborik ahulenen babesari dagokion arlo honetan ere.

Benetako zergaitia ekonomikoa bada ere, murrizketak mozorrotzeko «iruzurraren kontrola» eta antzeko izendapenak erabiltzen dituzte; horrela arreta zinezko debetetik aldendu nahi dute, eta prestazioak jasotzen dituztenak kriminalizatzeko eta beren izena zikintzeko kanpainak abiatzen dira, botere politikoetatik zein komunikabide nagusietatik, batzutan kutsu xenofobia dutelarik. Nahiago dute ahulei eraso egitea.

Murrizte politika hau bere gain hartu dute Eusko Jaurlaritzan azken urteetan izan diren alderdi desberdinek eta esku-bide sozialak baino, gastuaren kontrola hobetsi dute.

EAEko prestazioa ekonomikoan estaldura asko hobetu beharra dago, zenbatekoari eta baztertutako kolektiboak aintzat hartzeari dagokienez.

Horretarako Lanbiden jende gehiago behar da prestazio ekonomikoak jasotzen dituztenei behar bezalako arreta eman ahal izateko. Baina Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendaritzak murrizketen politika erabaki du:

Hau guztia, elkarrizketa sozialaren aterpean. EAEn eratu eta adierazpen bat besterik ez du egin, egungo DBE eta gizarteratze eredu berresteko. Ez da inolako balorazio edo irakurketarik egiten biztanleriaren benetako beharri zanei eta hauen estaldurari buruz, Lanbideren egoeraz... ◀

Getxo



Zabalketa GKEarentzako 11.728 euro batu ziren Villamonte kultur etxean egindako Bigarren Eskuko Liburu Azokan.

«Liburuak eta aisialdia batu gura ditugu»

Anabel Regalado Getxoko liburutegiko langileagaz egin dugu berba; Bigarren eskuko liburu azoka egin zuten ekainean, eta Letren Terrazen eskaintza martxan dute orain.

IKER RINCON MORENO ▶

Joan den hilabetean, Perurako dirua batu zuten, Algortako Villamonte kultur etxean egindako Bigarren Eskuko Liburu Azokan. Orain, berriz, ume, gazte eta ez hain gazteek liburuaz eta jolasez gozatzeko Letren Terrazak ipini dituzte martxan, Getxoko hainbat plazatan irakurtzeaz gozatu ahal izateko.

Ekainaren 17tik 21era bitartean, Bigarren Eskuko Liburu Azoka egin zuten Algortako Villamonte kultur etxean; zelakoa izan da harrera?

Izugarri ona, beti bezala. Aurreko edizioetan, Telletxe plazan egiten genuen, baina hainbat arrazoiren ondorioz, erabaki genuen Villamonte kultur etxera ekartzea, eta hemen egiten duguna, eta oso ondo atera da. Guztira, 6.000 pertsona inguru etorri dira, eta gehienek liburuaren bat edo beste erosi dute. Liburuak oso merke zeuden, euro batean edo inguruan; erabiliak, bai, baina oso egoera onean.

Zenbat diru lortu duzue guztira?

Guztira, 12.454 liburu saldu ditugu.

Hala ere, saldutako liburuekin batera, bi bote jarri genituen, bi boteetan jasotakoa gehitu behar zaio lortutako diruari: 11.728 euro. Jendeak nahi zuen beste sartzen zuen; 300 euro inguru lortu ditugu boteakaz.

Zein proiektutara egongo da bideratuta diru hori?

Aurten, Zabalketa GKEari emango diogu dirua, Peruko Iquitos herriko Huambrillo neskatoentzako aterpetxea babesteko. Bertan bizi diren nesken familiak pobrezian bizi dira. Zabalketaren laguntzagaz mantentzen da aterpetxea, eta azokan lortutako dirua, haiek esaten duten bezala, onuragarria izango da hura mantentzeko. Era berean, neskek nagusitzen direnean, beste tokiren batean ikasteko beka modukoak ere ematen dizkiete Zabalketakoek.

Nondik dator mota horretako ekimenak egiteko ideia?

Duela 10 urte, ez genekien zer egin liburutegian jasotzen genituen dohaintza guztiakaz. Batzuk udako liburutegietarako erabiltzen genituen, eta beste batzuk, tabernetan uzten genituen Irakurri Klean ekintzarako; baina, bazegoen kopuru handi bat sobe-

ran gelditzen zena. Eugenio Gandara aurreko zuzendariari azoka bat egitea otu zitzaion; oso arrakastatsua izan zen, gainera. Hala, ordutik, urtero egiten dugu bigarren eskuko azoka hori. Gainera, oso ekintza polita da, birziklatze kulturala lortzen dugulako, eta ekintza solidario baterako dirua lortzen dugulako.

Udan liburuakaz gozatzeko, Letren Terrazak ere abiatu dituzue. Zer aurkituko dute bertaratzen direnek?

Bai, hilaren 1ean hasi ginen ekimenagaz, eta bertaratutakoek liburuak aurkituko dituzte, noski; mota guztietakoak, euskaraz eta gaztelaniaz. Umeei zein nagusiei bideratutako liburuak aurki daitezke, bertan irakurtzeko zein etxera maileguzpean eramateko. Halaber, ondo pasatzeko gauzak egongo dira; gure asmoa da irakurtzea eta ondo pasatzea, batzea, giro onean. Izan ere, askotan, umeek uste dute liburuak eta irakurketa eskolako kontuak direla, eta ideia hori baztertu nahi dugu. Hainbat ekintza dibertigarri antolatuko ditugu: mahai-jolasak, tailerrak, eskulanak eta ikuskizunak, besteak beste. Udalerriko hainbat plazatan jarriko ditugu terrazak. ◀

Getxo

Artea kaleratuz

Algortako San Nikolas eta Bihotz Alai plazek Getxoko eta beste hainbat lekutako 32 artisten lanak hartu zituzten.

Garrobi arte eta kultur elkar-teak GART'15 jaialdia egin zuen, joan den ekainaren 27an, Algortako Bihotz Alai eta San Nikolas plazetan eta inguruetan. Bertan izan ziren hainbat diziplinako 32 artista, euren lanak aurkezteko. Hala, goizeko 11:00etatik gaueko 23:00etara, dantzak, antzerki-ikuski-zunek, era askotako tailerrek, kaleko muralek, erakusketek eta kontzertuek kaleak artez bete zituzten. Goizetik gauera arte, 1.832 lagunek bisitatu zuten Bihotz Alai plazan ipinitako karpa; San Nikolas plazatik ere beste horren-



32 artistaren proiektuak ikusteko aukera egon zen egun osoan. © GARROBI

beste lagun igaro ziren, «baina kalea denez, ezin daiteke estimatu zenbat pertsona», azaldu du Nerea Falagan Garrobiko kideak. Diotenez, «eklektikoa» da Garrobi elkarteak. Gazteek eta helduek osatzen dute, «eta horrek

aniztasuna eta aberastasuna» dakarrela adierazi dute. Jaialdi inklusiboa izan da, «balioez betetakoa»; era berean, euskararen aldeko apustua eta emakume artisten presentzia bermatu gura izan dute, besteak beste. ◀

Algortako ikasle-talde batek irabazi du Kultur Ondarea Saria

Algortako Julio Caro Baroja institutuko Alba Sanchez, Aitziber Pulido, Jone Vicente, Laura Mararie, Iratxe Cea eta Ander Gomezek irabazi dute Eusko Jaurlaritzak antolatutako Kultura Ondarearen hiru sarietako bat. Talde getxoztar irabazlearen lanaren izena *Surfing our traditional basque boat rebuilding* da. Bideoan, Algortako Itxas Egurra Haizean elkar-teak egiten dituen ontzi tradizionalen berreraikitzea aurkeztu dute, euskaraz, ingelesez eta gaztelaniaz. Bost ikasleak Irlandara joan dira, 7 egunez, hango ondarea ezagutzeko Paddy Woodworth idazle, kazetari eta gidariagaz batera. Amaitu berri den ikasturtean, EAEko 26 zentrotako Batxilergoko eta Lanbide Heziketako erdi mailako ikasle-ozatutako 67 taldek aurkeztu dituzte euren bideoak Kultura Ondarearen Sariaren lehenengo edizio horretara. ◀

XXVII GETXO & BLUES 2015

Uztaila / Julio · Biotz Alai Plaza (ALGORTA) · 21:00

16

6€

DAVINA & THE VAGABONDS

17

15€

MACED PARKER

Piper's Pub · 23:00 · Doan / Gratis · JACKIE REVLON CON TANO JAO

18

14€

ERIC SARDINAS & BIG MOTOR

Piper's Pub · 23:00 · Doan / Gratis · WILLY ENDAYA & ERNESTO SABAS BLUES

SARRERA SALMENTA / VENTA DE ENTRADAS:

www.kutxabank.es

94 491 40 80

Getxoko Kultur Etxea (Villamonte, A-8)

www.getxo.net

Getxo

EAJk eta PSE-EEk akordioa sinatu dute

Alderdi bien artean, Udala gobernatzeko hitzarmena sinatu zuten joan den ekainaren 30ean Imanol Landa alkateak eta Jose Luis Landa sozialistak.



Gobernatzeko «eraginkortasuna» bilatu gura dute akordio horregaz.

EAJk eta PSE-EEk 2015-2019 legealdirako akordioa sinatu dute. EAeko foru eta toki erakundeetan gehiengo iraunkorrak eratzeko akordioa itxi zuten ekainaren 12an. Akordio horren babesean, sozialisten botoak lortu zituen Imanol Landa Getxoko alkatezarako EAJren hautagaiak, alkate izendatzeko inbestidura-saioan. Alderdi bietako bozeramaileek azaldu dutenez, «udala egonkortasun politiko handiagoz hornitzeko helburu komunean aurrera egiteko behar eta borondate partekatutik» abiatu dute akordioa. Horren arabera, alderdi biek azaldu dute lan bateratuaren aldeko apustua eta konpromisoa hartu dutela. Hala, PSE-EEk Udal Gobernu Batzarrean parte hartuko du ordezkari batez, eta Ingurumen Saila kudeatuko du; alderdi biek Udalaren Legealdiko Plana (2015-2019) definitu eta garatuko dute; PSE-EE osoko bilkuretan aurrekontu-proiektuen alde agertuko da, eta sozialistek konpromisoa hartu dute zentsura-moziorik ez eragiteko gobernu-taldearen edozein kideren kontra. ◀

Itzubaltzeta/Romo eta Pinuetako jaiek badituzte irudiak

Itzubaltzeta/Romo eta Pinuetako jaiek badituzte festei irudia jarriko dieten hiru elementuak. Aurten, abuztuaren 2an eta 4tik 9ra ospatuko dituzte jaiak, eta daborduko aukeratu dituzte festak irudikatzen hiru elementuak: jai-kamisetak alaituko dituen marrazkia, zapietan erreproduzitzeko logoa, eta 3.000 jai-liburuxken azaleko irudia.

Hiru kategoria horietako irabazleak honakoak izan dira: Urtzi Sertuaren *Auzo Labela* izango da kamisetak alaituko dituen marrazkia; Arkaitz Tatoren *Erromon jaio, bizi jaia* izango da, berriz, zapietan erreproduzitzeko logoa, eta Josu Benitoren *Egun bat Erromoko jaietan* diseinuak irudikatuko du jai-liburuxka.

Diseinuak aukeratzeko lehiaketarako bozketan, 209 auzokidek parte hartu zuten. Hiru kategoria horietan lehiazeko epemuga maiatzaren 22a izan zen; saria, berriz, ehuna euro. ◀

Gazteentzako etxebizitza sozialak gura dituzte

Udalerriko 293 lagunek erantzun zioten ekainaren 20an Algortatik Hanka mugimenduak egindako galderari: «Zer egingo zenuke gaur Guardia Zibilaren kuartelak hartzen duen espazioan?». Aurretik, auzotarrek emandako proposamenetatik lau aukeratu zituzten, eta laurak aukeran jarri, kuartelaren espazioan zer egin gura duten hauta zezaten, Guardia Zibilak Algortatik alde eginez gero. Emaitzak honakoak izan ziren: Uribe Kostako memoriaren museoa egitearen aldekoak, 25; antzokia eta kioskodun plazaren aldekoak, 39; herriko frontoi publikoaren aldekoak, 52; eta gazteentzako etxebizitza sozialen aldekoak,



177. Algortatik Hanka-ko kideek pozik hartu dute emaitza, baita galdeketa egiteko aurreko lana ere, «auzokideen parte-hartzea oso ona izan da; gogotsu etorri da jendea». Aurreratu dutenez, «kontua ez da hemen geratuko». ◀



«Blas de Lezo» fragata Getxoko kirol portura heldu zen ekainaren 26an. Bertan, Abrako Itsas Errege Klubak harrera egiten zion bitartean, indar errepresiboaren kontrako Algortatik Hanka mugimenduak ere «ondoetorria» egin zion, «Euskal Herrian ez dituztela gura» aldarrikatzeko.

UDAKO IKASTAROAK
Uztaila eta Iraila

Matrikula epea:
Ekainaren 1tik 30ra

Bulego ordutegia:
9:30etik - 13:30era
15:00etatik - 17:00etara

Azterketa ofizialak prestatzeko
5 ordu egunero

Algortako etorbidea, 104
48991 - Algorta (Getxo)
94 460 66 71
j.a.agirre@euskalnet.net

GetxoGas

Txartel hau aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure autoaren garbiketari

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

TABERNA

Ekin

JATETXEA

CALLE BOLLUE Nº4 TEL: 946080462

GOIZEAN

“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa”
Prentsa - Fruitu lehorak - Aldizkariak - Litsarriak

Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

Erando



Lutxanako geltokia Txorierrira joateko erabil daiteke berriro ere, 19 urteren ostean.

Lutxanarrak pozik, trenaren bueltagaz

Lutxanako tren-zerbitzuak hilabetea egin du, 19 urteren ostean berrestreintatu ondoren. Udako ordutegia ezarri dute.

Euskotren eta Metro Bilbao pozik daude Lutxanako tren-geltokia berreskuratu izanagaz. Metroaren 3. linea eraikitzeke lanak direla eta, Lutxanatik pasatzen dira egunero Txorierrira joan ohi diren 5.000 bidaiariak. Euskotrenek argitu du «aurreikusitakoaren araberakoa» dela Lutxana-

ko joan-etorria. Lutxanarrek ere gogoz hartu dute oraingo tren-zerbitzua. Felix Blanco auzotarrak, adibidez, behin erabili du, Lezamako neska-lagunaren etxetik bueltatzeko. «Zerbitzua oso ondo dago», dio, eta berriro erabiliko duelakoan dago, «trenen zalea bainaiz». Txikitan ezagutu zuen berak tren hori, eta aitortzen duenez, «nostalgia» sortzen dio. Halere, badu kritika txiki bat, itxaron-tartea «agian luzeegia» dela iritzita. Euskotrenek udako ordutegiak iragarri ditu, metro-ara egokitzeko. ◀

info+: euskotren.es/eu

Nazioarteko laguntza eman du Udalak

Erandioko Udaleko Nazioarteko Lankidetzarako Arloak 35.000 euro banatu ditu hiru proiektuen artean, hegoaldeko herrialdeetan lankidetzaz-egitasmoak sustatzeko edo Erandion sentiberatze-kanpainak egiteko.

Onuradun nagusia Ibili Munduan Erandioko aisialdi-elkartea izan da; 13.814,50 euro batu ditu. Manos de Accion Solidaria Bilboko elkarteak, berriz, 11.361 euro jaso ditu; Ekuatore Ginea du ohiko esparru. Azkenik, 9.824,50 euro lortu ditu Senegalgo etorkinen komunitateagaz behar egiten duen Creando Futuros integratziarako eta nazioarteko lankidetzarako elkarteak. ◀

Fiskalak 9 urte eskatu ditu Bilbaoren aurka

Espainiako Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzak bederatzi urteko espetxe-zigorra eskatu du Erika Bilbao Barzena ezker abertzaleko militantearentzat. Horretarako, fiskalak Ekin erakunde politiko ilegalizatutako zuzendaritzaren kide izatea leporatzen dio, beste zortzi laguni legez; 2010eko irailean atxilotu zituzten bederatzia. Torturak pairatu zituzten, Bilbaok eta beste auziperatuek hainbatetan salatu dutenez.

Erika Bilbao 2012ko uztailaren 25ean askatu zuten, fidantzapean. Bestalde, urte gehiago zigortzea eskatu dute akusazio partikularrek: AVTk 12 urte gura ditu, eta Dignidad y Justicia, 11 urte. ◀

Jaiak, Arriaga auzoan

Iaz baino egun bat gutxiago, bari-kutik domekara ospatuko dituzte aurten Erandioko Arriaga auzoko San Trifon jaiak. Ohi legez, txupina, pregoia eta meza izango dira festaren lehen egunean. Festak laburtu izanak ez du ekarri ekimen gutxiago antolatzeari, nahiz eta jokoak, jolasak, gastronomia ekitaldiak eta musika emanaldiak berrantolatu, jaiak bere horretan jarraituko baitute. Izan ere, iaz utzitako zapo onari esker, hainbat lagunek eta ekitaldik errepikatuko dute aurten: Oliver magoa, Triskele eta Lisker musika-taldeak, putxera lehiaketa, txorizo eta odoloste janak, herri-bazkaria, igel-tokako txapelketa, idi-probak eta Olgetan solas. ◀

Uztailak 3, barikua

- 12:30 Txupina eta pregoia.
- 13:00 Meza eta aurreksua.
- 18:30 Mus azkarra.
- 24:00 Gaupasa Alaikigaz.

Uztailak 4, zapatua

- 11:00 Putxera lehiaketa, 14:30ak arte.
- 12:30 Igel-tokako txapelketa.
- 18:00 Idi-probak.
- 24:00 Gaupasa Liskerregaz.

Uztailak 5, domeka

- 12:00 Olgetan Solas kirol-jolasak.
- 13:30 Oliver magoa.
- 15:00 Herri-bazkaria.
- 18:00 Erromeria: Triskele.
- 20:00 Txorizo eta odoloste jana.

OLGETAN SOLAS 2015

Familia giroan ondo pasatzeko kirol-jolasak

ERANDIOGO/KOIA (ekainak 5)
FAOETA (ekainak 13)*
KUKULARRA (ekainak 28)
ARRIAGA (uztailak 5)*
GOIERRI (uztailak 12)
ASUA (uztailak 18)
ASTRABUDUA (abuztuak 9)
SANTIMAMI (abuztuak 18)
ALTZAGA (abuztuak 27)
ENEKURI (irailak 12)
LUTXANA (irailak 19)

ERANDIOKO JAIETAN
 INFORMAZIO GEHIAGO:
www.erandioko.euskarazertitza.eus
euskara@erandioko-udala.net - ☎ 944890128



Zuhaitz baten pean

ENARA
DIEZ OYARZUN
PSE-EEko ordezkaria

Herria herriarentzat

Azken foru eta udal hauteskundeen ondorioz, udalak osatu berri ditugu. Hautesle gehienek jakinarazi digute, politika aurrekoia, hurbila eta noski ezkerrekoaren beharra daukagula. Erabakiak ezin dira hartu «bizkarretik»; tamalez, badakigu, horrela izan denean ez dela onerako izan, nola izango dira onerako murrizketa ugari eduki dugunean osasunean, ikasketetan, gizarte zerbitzuetan... Baldintza horietan jarraitzea ezinezkoa da. Auzotarrok konfiantza jarri dugu era berri batean, ulertzen dugulako egin dezakegula desberdin, hobeto, askoz hobeto. Bere DNA-n daraman adina bete beharko du ezkerrek; babesteko eta bultzatzeko udal eta foru erakunde berri eta indartsuak, krisi ekonomikoa luze hau gainditzeko, enplegu-pultsua eta euskal biztanleen ongizatea berreskuratzeko eta denok aurrera egiteko. Kasu batzuetan koalizio-gobernuetatik, beste batzuetan arduraz oposiziotik; baina ezkerrek indartsu ekin beharko dio kalitateko zerbitzu publikoak lortzeko defentsan, denok behar ditugulako. Alderdi aurrerakoiak irudikatzen ditugunok, zor plusa daukagu, tradizionalki ezkerre beti izan delako klase kaltetuenen esperantza, eta nahia daukagulako, askatasuna, berdintasuna, aurrerabidean jarduteko; eta ezin dugu kale egin, ez. Badakigu printzipio horien aurkako proposamenak etorri eta etorriko direla sektore kontserbadoreetatik; edozer egiten dute, arazorik gabe, pertsonen gaintik pasatuz, beraien kontsumo konpultsiboarekin, ingurumenaren suntsiketarekin eta aisia arduragabeki tratatuz... Baina, oihartzun mediatikoa oso erraz lortzen dute. Bai, betidanik horrela izan da.

Agindutako lana onartu behar dugu gardentasun-irizpideekin, kale eta plazetan egoten, jendearekin, den-denok parte har dezagun, herritarra protagonista delako gure hiriburuetan, eta horrela izan behar duelako. ◀

Leioa

Hitzarmena berritu dute Udalak eta Andrak taldeak

Emakumeen elkarte soziokulturalak Udalak utzitako gunea erabiltzen jarraituko du, gastuak ordaindu barik.

Andrak Emakumeen Elkarte-agaz zeukan lankidetzahitzarmena berritu du Udalak. «Jarduera ugari egiten dituzenez, talde horrek dituen baliabideak aprobetxatu gura izan ditugu leioaztarren onerako», azaldu dute bertako agintariek. Hitzarmenaren helburua da eragile bien arteko kolaborazioa bermatzea. Emakume-taldeak kultura jarduerak eta emakumeen zeregina sustatzeko ekintzak antolatzen jarrai dezan, Udalak lehentasunezko erre-



Emakumeen interesen araberako jarduerak egiten ditu Andrak elkarteak. © LEIOAKO UDALA

gimenean utziko dio Andrak elkarteari, gaur egun erabiltzen duen lokala, Sabino Arana kaleko 78. zenbakiko behealdean; eta egoitzaren gastuak ere bere gain hartuko ditu Udalak.

1990eko apirilean sortu zen Andrak Leioako Emakumeen Elkarte Soziokulturala, eta 1.900 bazkide inguru dauka. Emakumeen partaidetza eta gizarteratzea sustatzeko eratu zen. ◀

Udako ordutegira egokitu dituzte udal zerbitzuak

Udal bulego denetan ezarri dute Udako ordutegia; udaletxea zein gainerako zerbitzuak (bulego teknikoak, Gizarte Zerbitzuak, eta Pinuetako bulegoa) 08:30etik 13:30era bitartean egongo dira zabalik, astelehenetik barikura, irailaren 18ra arte. Kultur Leioak eskaintzen dituen zerbitzuak ere udako ordutegira egokitu dituzte. Hala, 08:00etatik 14:30era egongo da zabalik, irailaren 18ra arte. Baina, barbarako, KZgunea itxita egongo da abuztuan. Uztailean 09:00etatik 14:00etara zabalduko dute, aste barruan. Aterpe Gaztegunea ere itxita egongo da abuztuan. ◀

Kultur Leioa

KZgunea: 09:00-13:00. Abuztuan, itxita.
Euskara-zerbitzua: 08:00-14:00.
Hezkuntza: 08:00-14:00.
Liburutegia: 08:00-14:30.
Kultura: 08:00-14:30.
Harrera: 08:00-14:30.

Aterpe Gaztegunea

Ikasteko gela: astelehenetik barikura, 09:00-14:00; zapatua eta domeka: 10:00-14:00 eta 16:30-20:30. Abuztuan, itxita.
Gaztelekuak: Ekainaren 26tik uztailaren 26ra, barikua, zapatua eta domeka: 18:00-22:30. Abuztuan, itxita.

Seme-alaben heziketan laguntzeko ikastaroak uda ostean

Etxadi kabinetearen bitartez, apirilean eta maiatzean, 0 eta 3 urte bitarteko umeak dituzten familiei hazkuntzan eta heziketan laguntzeko ikastaroa antolatu zuen Udalak. Izandako harrera ikusita, agintari leioaztarrek talde berriak antolatu behar izan dituzte uda osteko. Tamalez, agortu da horietan izena emateko epea. Prestakuntza-eskaintza osatzeko, hamabi orduko tailer bi eskainiko dituzte, doan. Lehena, 3 eta 11 urteko seme-alabak dituzten gurasoentzat, eta bigarrena, 12 urtetik gorako gaztetxoentzat. Irailean emango dute horien berri. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz



0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.

Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.

Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.

Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.

Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez!

Tlf: 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)
info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net



Harrizteko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industriala
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

Sopela

Labarrak ezagutu gura dituzu?

Bisita gidatuak antolatu ditu turismo-bulegoak Sopelako itsas labarrak ezagutzeko: abuztuaren 2an eta 30ean.

Sopelako auzotarrek, baita herrira hurbiltzen diren bisitariek ere, aukera izango dute herriko labarrak bertatik bertara ezagutzeko, abuztuaren 2an eta 30ean. Izan ere, turismo-bulegoa bisita gidatuak antolatzen dabil, zertarako eta Sopelako kostaldeko amildegri harrigarriak ezagutarazteko. Bisita horietako lehena uztail hasieran egin da, baina egongo da beste aukerarik ere parte hartzeko; hain zuzen ere, datorren hilean: abuztuaren bisita bi egingo dituzte, hilaren 2an eta 30ean. Beraz, biak izango dira domekan, eta 11:00etan hasiko dira.

Halako bisita gidatuak aspaldi an-

tolatzen ditu Sopelako turismo-bulegoak, udalerrian turismoa bultzatzeko helburuagaz eta herriak dauzkan hainbat ezaugarri agerian jartzeko. Gainera, geologiaren ezagutza indartu eta memoria historikoa bultzatzen dute ekimen horregaz.

Baina adi ibili; izan ere, bisitetan parte hartu gura izanez gero, aurrez izena eman beharra dago. Horretarako, turismo-bulegora jo daiteke (Loiola Ander Deuna, 28) edo, gurago bada, Larrabasterrako informazio-puntura (Aretxabaleta enparantza, 1). Bertarazterik ez duenak aukera du telefonoz eta Internetez ere izena emateko: utzi mezua 94 406 55 19 telefono zenbakira deituz, edo igorri mezua turismo@sopelana.eus helbide elektronikora.

Azkenik, bisita gidatuen prezioari dagokionez, kontuan hartu 3 eurokoa izango dela. ◀

info+: turismoa.sopelaudala.org



Bisitetan parte hartzeko 3 euro ordaindu beharra dago.

Akabukordun kuadrillak irabazi du San Pedro jaietan

Sanpedroek eman dute eman beharrek, eta datorren urtera arte agurtu ditugu jaiak. Baina, eman dituzten artean, kuadrillen arteko probetako irabazleak ere eman dituzte. Akabukordun kuadrillak irabazi du aurton, eta txapela, 150 euro eta makila eskuratu ditu. Makila ondo zaindu beharko dute inauterietara arte: orduan irabaziko duen kuadrillari emongo diote, lekuko bezala.

Sanpedroetan, lau proba jokatzeko dituzte kuadrillek, egun bakoitzeko bat: jaitziera eta erakustaldia; ur-jolasak; bolak, eta tortilla eta sangria txapelketak, eta triviala. Horietako proba batzuek ere badaukate saririk: jaitzie-



Akabukordun, kuadrillen erakustaldian.

ran, onenak izan ziren Ekin horri kuadrillakoak. Tortillarik gozoena, berriz, Katxiklan kuadrillak egin zuen, eta sangriarik onena, Egongo gatzik taldeko lagunek. Zorionak guztiei! ◀

Itzartu-ren *Todas somos compañeros* antzezlan, zapatuan

Datorren zapatuan, Sopelako Itzartu emakume elkartearen antzerki-taldeak antzezlan berria estreinatuko du: *Todas somos compañeros* da izenburua, eta Jaime de Arminan da obraren egilea.

Itzartu Teatroa taldeak herriko kultur etxea aukeratu du lana antzezteko: Kurtzion izango da emanaldia. Hilaren 4an, arrastiko 07:00etan ipini dute hitzordua. Gainera, eta urtero legez, sartzeta doakoa izango da. Horrenbestez, huts egiteko aitzakiarik ez dago. Zapatu honetan, hurreratu Kurtziora, hurbildu antzerkira, eta gozatu herriko kulturagaz! ◀

info +: www.turismoa.sopelaudala.org

Bizkaiko txirrindulari itzuliaren 2. etapa, junior mailan

Herri honetan badago zaletasuna: Txirrindularitzak badauka jarraitzailerik Sopelan. Eta horiek zori-neko daude aste akabu honetan. Zergatik? Bizkaiko Itzulia txirrindulari lasterketaren 2. etapa egingo delako junior-kategorian, noiz eta bariku honetan, uztailaren 3an. Bigarren etapa udaletzeko plazan hasi eta amaituko da; abiatu, arrastiko 04:00etan abiatuko dira txirrindulariak. Etapak 80 kilometro izango ditu, eta, besteak beste, ondoko herrietatik igaroko da: Urduliz, Laukiz, Asua, Derio, Zamudio, Larrabetzu, Mungia, eta Gatika. Uztailaren 5ean amaituko da itzulia. ◀

info +: www.febici.org

Jarrai gaitzazu:

hirukaEus @hirukaEus

www.hiruka.eus

DIDAK

hAMILTON

IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

De. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 SOPELA
TE: 94 676 30 12
info@didakhilton.com

Hurtzaindegitik batxilergora arteko eskaintza

Gatzarriñe bidea 47, Sopela
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus
www.anderdeunaikastola.eus



ander deuna
I K A S T O L A



LABetik atera berri

IRATXE
AZKUE REINALES
LABeko Eskumaldeako idazkaria

Agur eta ohore, Periko! Zure borroka gure eredu

Badira bizitzan hausnarketa eta gogoetarako saio bereziak. Pasa den astean, Periko Solabarria joan zaigu, eta horrek zer pentsatua eman dit. Bakoitzak erabakitzen du nola bizi eta nola hil nahi duen, eta Perikok oso argi izan du, beti, ez zela makurtuta biziko, eta borrokatzen hilko zela. Hitzekin eta ekintzekin janzten zuen Perikok bere eguneroko jarduna. Beti koherente, beti tinko. Langile borrokalari eta langileen eskubideen defendatzaile nekazina zen. Kalea izan du lantoki azken arnasa eman arte. Injustizia politiko eta sozialen aurkako borrokan, izan etxegabetzeak, izan lan gatazkak, izan kutxen pribatizazioa, izan legez kanporatzeak, izan bazterketa sozialen salaketa... Euskal Herrian eskubide politiko eta sozialen aldeko borroka non, Periko han. Lokatzetan uzten direla oinatzak, kalean, eta ez alfonbra gorrietan, esaten zuen Perikok. Meatzari baten semea zen, eta, 10 urte zituenean, tuberkulosiak jota hil zitzaion aita. La Arboledako Triano auzoan apaiz zela, ez zuen ulertzen nola hango langileek ez zeukaten ez argirik, ez urik, ez jatekorik, meategiko jabeak, Negurin bizi zirenak, erotasun eta luxu handiarekin bizi ziren bitartean. Hortik abiatuta, borroka obsesio bat izan da Perikoren bizitza osoan. Pribilegio guztiei uko egin eta bazekien noren ondoan egon behar zuen: bere herriaren ondoan, langileriaren ondoan.

Horregatik, eredu bihurtu da euskal herritarren belaunaldi berrientzat. Eredu dugu Periko, eta haren militantzia. Eta horrela gogoratuko dugu, gure eguneroko borroketan bidelagun. Berak herria maite zuen, eta herriak bera. Perikorekin hasitako bideak aurrera darrai. Berak egindako ekarpena gurekin geratuko da. ◀

Lemoiz



Yoga, pilates, zumba eta gimnasia egin ahal izango dira.

Udarako ikastaro ugari, aukeran

Eguzkia, hondartza, denbora librea... Udagaz batera, gogo berpizten da etxetik irten eta kirola egiteko. Horren jakitun, Lemoizko Udalak uztailerako hainbat ikastaro antolatu ditu, auzotarren gozamenerako. Astelehenetan, gorputza indartzeko *tonic gym* delakoa egingo dute, goizeko 10:00etan hasita, 15 euroren truke. Yoga oso egokia da bizitza osasuntsua izateko, eta, hala, yoga eta meditazio ikastaroa egingo dute martitzenetan eta eguenetan, goizeko 09:30etik 10:45era. Ikastaro horretan parte hartu ahal izateko, 30 euro ordaindu beharra dago. Martitzen eta eguenetan, *zumba*-saioak ere egingo dituzte gerrikoak astintzeko eta gorputza dantzan ipintzeko, arrastiko 07:00etatik aurrera. Ikastaro horretara-

rako aukera bi egongo dira: ordu batekoa, 15 euroren truke; edo ordu biko, 30 euroan. Martitzenetan ere, 50 minutuko umeentzako *zumba*-saioak egingo dituzte, arrastiko 06:00etan, 12 euroren truke. Barikuetan, zer egin egongo da Lemoizen: gorputza askatzen ikasteko pilates-saioak egingo dituzte, goizeko 10:00etatik 11:30era arte. Saio horietan parte hartu gura duen edonork 20 euro ordaindu beharko ditu.

Izena eman, alde aurretik

Saio horietan guztietan parte hartu nahi duenak alde aurretik izena eman beharko du, Lemoizko kultur etxean bertan. ◀

info+: www.lemoiz.eu
harremanetarako: lke@lemoiz.net

Berango/Sopela

Mara Mara Txiki proiektua hedatzeko laguntza behar dute



Sopelako baserri bat berriztatu behar dute.

Mara-Mara proiektua Berangotik Sopelara hedatuko da irailean. Sopelan Mara Mara Txiki egitasmoa aurrera eramateko, «leku ezin hobea» aurkitu dute: naturaz inguratuta. Zelai-eremu handiko baserria lortu dute, «non haizearen eta txorien kantua entzuten den soilik», arduradunek deskribatu dutenez. Proiektua zabaltzea «oso garrantzitsua» dela diote, bertan Mara Marako proiektu guztiak aurrera eroran ahal izateko. Baserri hori berriztatzeko, Mara Marakoek martxan ipini dute finantziario kolektiboaren kanpaina. Horregaz, «bakoitzaren nahien edo ahalbideen arabera ekarpenak» egin ahal izango dituzte, 10 eurotik hasita 500 euroraino. Lortu gura duten gutxienezko 4.900 euro dira; hala ere, 8.200 euro lortuz gero, egoera «hobezina» litzatekeela diote.

Horrez gainera, jendearen bestelako kolaborazioa ere eskertuko luketela jakinarazi dute, ortuan laguntzeko, besteak beste. Opariak emango dizkiete, berriz, diruz edo denboraz laguntzen duten guztiei. ◀

Gorliz

Euskara ikasteko laguntzak eskatzeko epea zabaldu dute

Euskara ikasteko laguntzak emate aldera, epea zabaldu du Gorlizko Udalak joan den ikasturtean euskara ikasi dutenek diru-laguntzak eskatzen. Horretarako, indarrean dagoen ordenantza baldintzak bete beharko dituzte eskatzaileek, eta eskari-orriagaz batera, hainbat dokumentu aurkeztu beharko dituzte: NANaren fotokopia; euskaltegiaren egiaztagiria, eta bertan agertu beharko du ea zer maila egin duen, gaitur duen ala ez, ikastaroaren ordu-kopurua, eta zenbat ordu egin duen ikastaroan; eskatutako edo lortutako diru-laguntzen gaineko informazioa; ikastaroa ordaindu



izanaren egiaztagiria; eta kontu-korrontearen zenbakia. Urriaren 31ra arte aurkeztu ahal izango dituzte interesa dutenek dokumentu horiek guztiak, Gorlizko udaletxean bertan. ◀

info+: www.gorliz.eu

Gorliztar batek irabazi du Bizkaidatz Txikiaren 1. saria

Sandra Ferron Rementeria gorliztar irabazi du Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako Bizkaidatz Txikia literatura lehiaketaren lehenengo saria, umeen gaztelaniazko kategorian. Kategorian bitan banatuta dago sariketa, umeena eta gazteena, eta bakoitza, beste bitan: euskara eta gaztelania. Guztira, 186 neska-mutiek hartu dute parte lehiaketan. Literatura-kontaktun bat idatzi behar izan dute, gaur egungo bi idazlek proposatutako bi hasieretatik abiatuta: Belen Lucasen *El misterio del jardín botánico*, gaztelaniaz; eta Joanes Urkixoren *Zuhaitz neska*, euskaraz. ◀

Urduliz



Guztira 105 umek parte hartu dute Eskolarako Bidean. © URIBE KOSTAKO ZERBITZU MANKOMUNITATEA

Umek etxetik eskolara modu seguruan joaten ikasi dute

Umek etxetik eskolara arteko bidea modu iraunkor, autonomo, osasuntsu eta seguruan egiteko proiektua jarri du martxan Urdulizko Udalak, Elortza eskola publikoaren eta ikasleen guraso-elkartearen laguntzagaz. Hala, proiektuaren esperientzia pilotua egin zuten ekainaren 1etik 19ra bitartean. Lehenengo egunean, 40 bat umek parte hartu zuten, baina, amaierarako, guztira, 105 izan dira parte-hartzaileak.

Ibilbide bi egin dituzte. Horietako batek Aita Gotzon kalea zeharkatzen zuen, trenbide-pasagunetik eskolaraino; bestea Zugazti plazan hasten zen. Esperientziaren azken egunean, ibilbi-

deari jai-giroa eman zioten, hiru aste horietan ibilbidea egin zuten umek zoriontzeko. Hala, hartz itxurako giltzatakak banatu zizkieten umeei.

Eskolarako Bidea proiektua Francesco Tonucci pedagogo italiarrak egindako esperientzietan egon da oinarrituta; egunotan bere proposamenak entzuteko aukera egon da Leioan. Umek eskolara egiten dituzten bidaien protagonista bihurtu ditu ekimenak. Haurren autonomia-eredua sustatu du, ingurua aztertuz, kanpokoagaz harremanetan ipiniz eta erabakien kontzientzia hartuz. Arduradunek azaltzen dutenez, proiektuak zeregin gizarteratzailea eta hezigarria betetzen du. ◀

Uribe Kosta

Bigarren eskuko azokan izena eman daiteke, daborduko

Azken aldiko ohiturari jarraituz, Uribe Kostako bigarren eskuko azoka egingo dute hamaikagarrenez. Oraingoa Plentzian izango da, irailaren 5ean.

Denbora dago oraindino erabiltzen ez diren gauzak armairutik ateratzeko; hala ere, gauza horiek saltzeko edo trukean aldatzeko mahai bat ipini gura izanez gero, uztailaren 15era arte dago izena emateko epea. Horretarako, Uribe Kostako Mankomunitatearen webguneko orria bete beharko dute parte hartu gura dutenek.

Postuak esleitzeko, lehentasuna izango dute Uribe Kostako Mankomunitateko udalerrietan erroldatuta dauden auzokideek. Bigarren eskuko produktuak saldu ahal izango dira azokan, baina baita trukean edo mutrutuk eman ere. ◀

info+: www.uribekosta.org

harremanetarako: ekogune@uribekosrta.org

946 762 872

Bizkaibuseko autobus guztiek 10 urte izango dituzte gehienez

Bizkaiko Foru Aldundiak datorren urtean, 2016an, amaitutzat emango du Bizkaibus garraio zerbitzuko flotari 64 autobus berri gehitzeko prozesua. Horretarako, 13.308.569,89 euroko inbertsioa egin du guztira. Neurri horregaz, Bizkaibuseko autobus guztiak hamar urtetik beherakoak izango dira datorren urterako.

Aldundiak 2016ko lehenengo sei hilabetean amaituko du Bizkaibus bidaiarien herrien arteko garraio publikoaren zerbitzuko autobusak berritzeko prozesua. Hala, unitate guztiek, gehienez ere, hamar urteko balio-bizitza izango dute.

Uribe Kostako eskualdean, Euskotrenek ustiatzen duen Uribe Kosta-Ezkerraldea-EHU autobus linearen emakidan, Low Entry delakoaren 4 unitate gehitu dituzte: hiri arteko 2 autobus, 12 metrokoak; eta beste bi, 18 metrokoak. ◀

info+: www.bizkaia.eus

Astebeteko oporrak haurrekin...



Salou

Uztaila. 8 egun / 7 gau.
Los Angeles 3* hotela. Mantenu erdia.

305€

Bi ume doan

Tenerife

Uztaila. Hegaldia. 8 egun / 7 gau.
Dania Magec 4* hotela. Gosariak barne.

385€

Tasak barne

Madeira

Uztaila. Hegaldia. 8 egun / 7 gau.
Terrace Mar Suites Apartamentuak 4*. Gosariak barne.

555€

Tasak barne

Playa Bávaro

Uztaila. Hegaldia. 9 egun / 7 gau.
Riu Naiboa 4* hotela. Dena barne.

780€

Tasak barne



edo gau erromantiko bat bikotekidearekin?

Bi gauzak

Orain, zure Oporrekin, **gou!** ihesaldi bat

doan **150€**-ra arte.

Eta **50€**-ra arte itzuliko dizugu zure EROSKI club txartelean

Ekainaren 15-tik uztailaren 5era arte baino ez.

Oinarritzko prezioak dira pertsonako, logela bikoitzean. Iragarmitako itzultzea pertsonako da, eta tasarik gabeko prezioen gainean uharteetan eta Kariben. Kontsultatu gainerako baldintzak saltokian. Plaza mugatuak. EIK G18.

EROSKI bidaiak

www.escapareviajes.es
www.viajeseroski.es

Anetsetan? Egizu logan!



Plentzia

Plentziako eta eskualdeko iraganeko bizitza ezagutzeko



Plentziako eta inguruetakoko bizimodua zer-zelakoa zen erakutsiko dute uztailaren 7an eta 8an.

Plentzia eta Uribe Kosta-Butroeko Tokiko Historia jardunaldien zortzigarren edizioa egingo dute hilaren 7an eta 8an, Goñi Portalean. Besteak beste, Barrikako aterpea eta Zabalerrota ezagutu ahal izango dira.

Urtero legez, Plentziako eta inguruko tokiko historia ezagutarazteko jardunaldiak antolatu dituzte. Plentzia eta Uribe Kosta-Butroeko Tokiko Historia jardunaldien zortzigarren ekitaldia izango da aurtengoa; eta «Bizitzetako kontakizunak / Bizitzetako historia» hartu du gaitzat. Hilaren 7an eta 8an izango diren jardunaldien saioak Plentziako Goñi Portal kultur etxean egingo dira. Lau komunikazioaren bidez, planteamendu bat aurkeztuko dute: bizitzaren kontakizunak eta istorioak tresna moduan erabil daitezke lekukotzaren subjektibitatea eta historiaren interpretazioa ikertzeko.

Jardunaldien inaugurazio-ekitaldi-

an egongo dira David Crestelo Plentziako alkatea, Zutoia Azurmendi zinegotzia, Rosa Miren Pagola Eusko Ikaskuntzako Bizkaiko lehendakariordea

Zabalerrotaren iragana eta etorkizuna; ingeles tropek bahitutako plentziar kapitainak; Elorduy babes-etxea...

eta Gonzalo Duo jardunaldien koordinatzailea. Lehenengo saioa hilaren 7an izango da, martitzena, arrastiko 07:00etan. Identitas Historia Corporativaren kide Susana Chavarriren age-

rraldiagaz hasiko dira saio akademikoak; Barrikako aterpearen eta Elorduy Fundazioaren inguruan egingo du berba. Jarraian, Oceantec Energias Marinaren kide Martin Ojanguerenek jardungo du: Zabalerrotaren iragana eta etorkizuna izango ditu berbagai, eta ikuspegi energetiko batetik helduko dio gaiari.

Hurrengo egunean, hilaren 8an, EHUko irakasle Xabier Lamikizek eskainiko du berbaldia, XVIII. mendeko gudetan ingeles tropek harrapatutako zenbait kapitain plentziarren gainean. Javier Garcia Borreguero Plentziako Museoko langilearen ahotik egingo da, berriz, Plentziako eta Uribe Kostako jardunaldien itxiera, Plentziako portuko ontzi tradizionalen katalogazioaren inguruan. Goñi Portal kultur etxean izango dira saio denak, arrastiz, eta «sarrera irekia» izango dute.◀

harremanetarako: 618 184 949
komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus

Plentziako historia jardunaldiak

2008

Plentziako hiriko udal ordenantzaren 500. urteurrena. 1508-2008.

2009

Plentziako Tokiko Historiaren II. jardunaldiak (1500-1812).

2010

Plentziako Tokiko Historiaren III. jardunaldiak (1800-1900).

2011

Plentziako Tokiko Historiaren IV. jardunaldiak (1868-1936).

2012

Plentzia eta Uribe Kosta, 1936ko Gerra Zibilean eta diktadura frankistaren garaian.

2013

Uribe Kosta-Butroeko aldeko natura eta ondare-baliabideak.

2014

Uribe Kosta-Butroeko aldeko gizartea, lana eta ekonomia.

2015

Bizitzetako kontakizunak / historia.

**SARTU GURE
WEB BERRIAN**
www.cianoplan.es
902-103 763

kartelgintza



inprimategia



kopisteria



cianoplan
MUNDU BERRIAREN



Elizaren fatxadan proiektatutako argi-ilunen ikuskizuna egongo da aurten ere Plentzian. © MIKROFILM SHORT FESTIVAL

Film laburren ordua

Mikrofilm Short Festival eta **Gaurik Laburrena** izango dituzte zinema-zaleek Plentzian eta Algortan.

Uztailaren 3an eta 4an, barikua eta zapatua, egingo dute Mikrofilm Short Festival jaialdia Plentzian. 2011ko uztailaren 7an auto-istripu batean zendu zen Alex Arana Etxebarria zinemasale plentziarraren omenez abiatu zuten ekimena, hura hil eta urtebetera. Hala, elizaurrea zine-gune bihurtuko da laugarrenez.

Genero beltzari eskainitako jaialdi berezia da, eta film laburren lehiaketa dauka ardatz. Joan den martxoan zabaldu zuten aurtengo jaialdirako ikus-entzunezkoak aurkezteko epea, eta apirilaren 24an, itxi. Horrenbestez, antolatzaileek badaukate, daborduko, ikusgai egongo diren lanen zerrenda. Barikuan, ondokoak proiektatuko dituzte: *Zarautzen erosi zuen* (Aitor Arregi, Euskal Herria), *Preto ou branco* (Alison Zago, Brasil), *Caracol* (Roman Reyes, Espainia), *Inside the box* (David Martin Poirras, AEB), *ZEPO* (Cesar Diaz Melendez, Espainia), *El corredor* (Jose Luis Montesinos, Espainia), *Lothar*

(Luca Zuberbuhler, Suitza) eta *Confessions* (Philippe Carron, Frantzia).

Zapatuan, oster, ikusgai egongo diren film laburrak hauek izango dira: *Sequence* (Carles Torren, AEB), *Viaje a pies* (Khris Cembe, Espainia), *Triptyque* (Camille Mikolajczak, Belgika), *Yayos* (Roberto San Sebastian, Espainia), *Kill Kill... bang bang!* (Tonee Martz, Espainia), *Don Miguel* (Kote Camacho, Euskal Herria) eta *Anomalo* (Aitor Gutierrez, Euskal Herria).

Saio biak Plentziako eliza aurreko plazan izango dira, 22:35ean barikuan, eta 22:50ean, zapatuan. Epaimahaiak azken egunean, gaueko 00:15ean, ezagutera emango ditu irabazleen izenak. Baina, film laburrez gainera, berbaldiak, kontzertuak (tartean Mobydick ezinenagaz ezaguna den Eneko Burzako algortarra), antzezlaria, poker jokoa eta elizaren fatxadan proiektatutako argi-ilunen ikuskizuna (Mario Jimenez ardurapean) eskainiko ditue Mikrofilm Short Festival jaialdiak bere laugarren edizioan.

Gaurik Laburrena

Getxon ere, urtero legez, Gaurik Laburrena film laburren emanaldiagaz gozatzeko aukera edukiko dute zinema-zaleek, uztailaren 6an eta 7an. Egun

bietako saioak 21:00etan hasiko dira Algortako Bihotz Alai plazan, eta sarrrera doakoa izango da. Getxoko Kultur Etxeak ohartarazi duenez, pelikula ez dira egokiak 18 urtetik beherako neska-mutilentzat. Aurreko urteetan, lehenengo egunean gaztelaniazko filmak baino ez zituzten proiektatzen, eta bigarren, euskarazkoak. Aurten, oster, ikusgai egongo diren 22 ikus-entzunezko lanetatik zazpi bai-

Plentziako jaialdian lehiatuko dira Algortan ikusgai egongo diren film laburretako batzuk

no ez dira euskaraz, eta gaztelaniazkoak batera proiektatuko dituzte, nahastuta, egun bietan.

Ondokoak dira euskarazko lanak: *Hubert Le Blonen azken hegaldia* (Koldo Almandoz), *Hor dago* (Urko Villasante), *Zarautzen erosi nuen* (Aitor Arregi), *Betiko istorioa* (Urtzi Perez), *Aitona Mantangorria* (Kepa Errasti), *Sormenaren bide ezutuak* (Lara Izaguirre) eta *Irudi mintzatuen hiztegi poetikoa* (Maria Elorza, Maider Fernandez eta Aitor Gametxo). ◀

Mikrofilm Short Festivala Plentzian

Uztailak 3, barikua

Plentziako elizako plaza

20:30 Berbaldia, laburrean: Mirian Fernandez, Asier Altuna, Haritz Zubillaga, Aitor Gutierrez eta Roberto San Sebastian.

21:45 Kontzertua: Mobydick acoustic.

22:30 Aurkezpena.

22:35 Film laburren proiektzioa.

23:55 *Mikroshow*-a: *El acomodador*.

00:20 Argi-ilunen ikuskizuna (Mario Jimenez ardurapean).

00:50 Kontzertua: Highlights.

Uztailak 4, zapatua

Plentziako elizako plaza

16:30 Poker jokoa.

20:30 Berbaldia: *El proceso FX*, Cristina Igresiasek eskainiko du.

21:45 Kontzertua: Feten Feten eta Barru.

22:45 Aurkezpena.


22:50 Film laburren proiektzioa.

00:15 Sari-banaketa, eta *El Acomodador* ikuskizuna.

00:50 Argi-ilunen ikuskizuna (Mario Jimenez ardurapean).

01:20 Musika-emanaldia: DJ Juan Solo.

info+: www.mikrofilmfestival.com



Gaurik Laburrena Algortan

Uztailak 6, astelehena

21:00 Algortako Bihotz Alai plaza

- *Hubert Le Blonen azken hegaldia* (Koldo Almandoz).

- *Hor dago* (Urko Villasante).

- *El bosque negro* (Paul Urquijo).

- *Medusa* (Alex Casas). Gaztelaniaz.

- *Zarautzen erosi nuen* (Aitor Arregi).

- *Basauri Mirror* (Ruben Ontiveros).

- *Clases de ingles con el tio Josetxo* (Axel Casas).

- *Esto se ha hecho mil veces* (Xavi Tolosa).

- *Oscar desafinado* (Mikel Alvariano).

- *Morado* (Nestor F.).

- *El palo* (Miki Esparbe).



Uztailak 7, asteartea

21:00 Algortako Bihotz Alai plaza

- *Betiko istorioa* (Urtzi Perez).

- *La Sra. Jesus Mari* (Aitor Arenas).

- *Aitona Mantangorria* (Kepa Errasti).

- *Tortuga ninja profesional* (Axel Casasena).

- *Dynamito* (Ruben Ontiveros).

- *Sormenaren bide ezutuak* (Lara Izaguirre).

- *Anomalo* (Aitor Gutierrez).

- *Acabo de tener un sueño* (Javi Navarro).

- *Irudi mintzatuen hiztegi poetikoa* (Maria Elorza, Maider Fernandez eta Aitor Gametxo).

- *Samurai Santa* (Axel Casas).

- *Hostiable* (David Galan Galindor).

!! Desegokia 18 urtetik beherakoentzat.

hirukagenda

Uribe Kostako asfekaria

2015eko uztalaren 2tik uztailaren 8ra arte



hiruka.eus



SOPELA

Bypass filmean, zuzendari eta aktore lanak uztartu zituen Aitor Mazok.
© ABRA PRODUKZIOAK

Euskarazko pelikulak izarpean emango dituzte

Ilargipeko Zinema-zikloa uztailaren 11n, zapatua, abiatuko dute Sopenan, *Bypass* filmagaz. Patxo Telleriak eta orain dela lau hilabete zendutako Aitor Mazok zuzendu zuten pelikula hori. Emanaldia 22:15ean hasiko da, udaletxeko plazan; euskaraz izango da, eta sarrera, doan. 2012ko urriaren 11n estreinatu zuten *Bypass* filma Euskal Herriko zinema-aretoetan.

Gorka Otxoa (*Goenkale, Vaya Semanita, Pagafantas*) eta Barbara Goenaga (*Goenkale, Izarren Argia*) ditu protagonista komedia erromantiko horrek, eta zinea barre-algaraz bete ei zuten 2012ko Donostiako Zinemaldian. Aktore horiez gainera, Sara Cozar, Mikel Losada, Itziar Aienza, Unax Ugaldede eta Aitor Mazo bera agertuko zaizkigu pantailan. Pelikulak 98 minutuko

iraupena dauka, eta Patxo Telleriak idatzi zuen gidioa.

Ilargipeko Zinema zikloari dagokionez, abuztuaren 1ean, zapatuan, izango da hurrengo emanaldia, Jean-Pierre Jeunet zuzendari frantziarraren *Gazte harrigarria TS Spivet* filmagaz. Emanaldia 22:15ean hasiko da Larrabasterako Urgibixeta plazan; zazpi urtetik gorakoentzat, euskaraz eta doan. ◀

2015/07/02 - 2015/07/04 - gauerdian

Jam saioak

The Piper's taberna irlandarra | Getxo
Getxoko Nazioarteko Jazzaldiaren barruan. Three One taldeagaz. Sarrera doan.

2015/07/02 - 19:00

Victor de Diego Trio, kontzertuan

Getokia (Telletxe) plaza | Getxo
Getxoko Nazioarteko Jazzaldiaren barruan. Hirugarren Milurtekoa atalean. Sarrera doan.

2015/07/02 - 21:00

Maciek Wojcieszuk Quintet eta Network, kontzertuan

Bihotz Alai plaza | Getxo
Getxoko Nazioarteko Jazzaldiaren barruan. Sarrera: 12 euro. Abonamendua: 65 euro.

2015/07/03 - 2015/07/04 - arrasti eta gauean

Mikrofilm Short Festival

Eliza aurreko plaza | Plentzia
Film laburren emanaldia, berbaldiak, kontzertuak, antzezlanak, poker-jokoa, eta eizaren fatxadan proiektatutako argi-ilunen ikuskizuna egongo dira. Sarrera doan. Informazio gehiago: www.mikrofilmfestival.com

2015/07/03 - 2015/07/05 - egitaraua begiratu

San Trifon jaiak

Arriaga auzoa | Erandio

Egitarau osoa: hiruka.eus/agenda

2015/07/03 - 16:00

Junior kategoriako txirindularien lasterketa

Udaletxeko plaza | Sopela
Bizkaiko Itzuliaren bigarren etapa.

2015/07/03 - 19:00

Onna Project, kontzertuan

Getokia (Telletxe) plaza | Getxo
Getxoko Nazioarteko Jazzaldiaren barruan. Hirugarren Milurtekoa atalean. Sarrera doan.

2015/07/03 - 19:00

Kultur arteko martxaren gaineko informazio-saioa

Algortako kultur etxea | Getxo
Hilaren 5erako irteera antolatzen dabilza Lagun Artean, Itxas Argia, Ibilki eta Egizu Getxo Euskaldun elkarteak, Etorikinen Plataforma Federazioa eta Getxoko Udala. Kultur arteko martxan izen-ematea: 658 360 292

2015/07/04 - 2015/07/05 - 16:00-20:00

Paddle-surfa

Axpe erribera | Erandio
18 urtetik beherakoek heldu bategaz joan behar dute. Txanda bi: 16:00etatik 18:00etara, eta 18:00etatik 20:00etara. Doan, erandioztarrentzat. Informazioa: 645 536 958

2015/07/04 - 19:00

Philippe Lemm Trio, kontzertuan

Getokia (Telletxe) plaza | Getxo
Getxoko Nazioarteko Jazzaldiaren barruan. Hirugarren Milurtekoa atalean. Sarrera doan.

2015/07/04 - 21:00

EYM Trio eta The Stanley Clarke Band, kontzertuan

Bihotz Alai plaza | Getxo
Getxoko Nazioarteko Jazzaldiaren barruan. Sarrera: 23 euro. Abonamendua: 65 euro.

2015/07/05 - 13:00

Erandioko Udal Musika Bandaren kontzertua

Irailearen 23a plaza | Erandio
Sarrera doan.

2015/07/05 - 19:00

Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestraren kontzertua

Getokia (Telletxe) plaza | Getxo
Getxoko Nazioarteko Jazzaldiaren barruan. Hirugarren Milurtekoa atalean. Sarrera doan.

2015/07/05 - 21:00

Talde irabazlea eta Madeleine Peyrouxen kontzertua

Bihotz Alai plaza | Getxo
Getxoko Nazioarteko Jazzaldiaren barruan. Sarrera: 20 euro. Abonamendua: 65 euro.

2015/07/06 - 2015/07/07 - 21:00

Gaurik Laburrena

Bihotz Alai plaza | Getxo
Egun bietan, 22 film labur egongo dira ikusgai, euskaraz eta gaztelaniaz, nahastuta. Doan.

2015/07/06 - 2015/07/09 - arrastian

Dantza-ikastaro trinkoak

Meso, 15 (Astrabudua) | Erandio
Dance GM areto-dantzen elkartearen eskutik. Hip-hop, *zumba*, sevillanak eta salta. Matrikula: 45€. Ordutegiak: www.dancegm.com

2015/07/07 - 2015/07/08 - 19:00

Plentzia eta Uribe Kostako

Grzegorz Wlodarczyk Qt.

ERANDIO

Euskaraz olgetan, auzoetako jaietan

Jai-batzordeakaz elkarlanean, aurtene bere baserriko jardueretan oinarritutako jolasak antolatzen dabil Erandioko Euskaraz Zerbitzua, Olgetan Solas goiburua-gaz. Uztailaren 5ean Arriaga auzoan egingo dituzte, 12:00etan. ◀

GETXO

Meza kreolea kantatuko dute

Ondarreta ahots mistoen abesbatzak Alturas taldeagaz kantatuko du uztailaren 11n, zapatua. Hitzordua 19:30ean ipini dute Algortako Bihotz Alai plazan, sarrera 5 euroan dago. Alturas taldeak Andeatiko musika-tresnak jotzen ditu. ◀

GORLIZ

Arte erakusketak, uztail osoan

Uztailaren 7ra arte, Jorge Martinez Pablosen margo-lanak egongo dira, erakusketa-aretoan, 11:00etatik 14:00erara eta 19:00etatik 21:00etara. Hilaren 8tik 19ra, Susana Sertutxaren aerografiak ipniko dituzte; arrastiz bakarrik. ◀

eta Joe Lovano Quartet, kontzertuan

Bihotz Alai plaza | Getxo
Getxoko Nazioarteko Jazzaldia-aren barruan. Sarrera: 15 euro. Abonamendua: 65 euro.

Piraguen doako mailegia

Altzagako ontzira lekua | Erandio
20 leku. Doan, Erandion eroldatuentzat eta adin txikiagoentzat. Info+: 665 702 282

Iraide Urkiaga ipuin-kontalaria

Gernika parkea (Neguri) | Getxo
Udako liburutegien eskutik. Euskaraz eta gaztelaniaz. Familia osoarentzat. Sarrera doan.

Historia jarraunaldiak

Goñi Portal kultur etxea | Plentzia
Sarrera doan. Informazio gehiago: www.eusko-ikaskuntza.eus

2015/07/08 - 19:00

2015/07/04 - 2015/07/05 - 10:00-14:00

Letren Terrazek jolasak eta ikuskizunak eskainiko dizkiete txikiei

GETXO



Comedy ZOO Tour saioa, Algortan

Santi Millan, Jose Corbacho eta Javi Sancho lehenengo aldiz elkarrengaz edukiko ditugu oholtza gainean. Umore-ikuskitzunean zuzeneko interakzioa bilatuko dute ikusleak hiru komikoek. *Comedy ZOO Tour* gaueko antzerki-ekitaldia da. ◀

Noiz: Uztailak 10, barikua
Ordua: 21:00
Non: Bihotz Alai plaza
Sarrera: 20 euro

1 Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektronikoko honetara: hiruka@hiruka.eus

2 www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.

BERANGO

Abesti mexikarrak, kubatar ahotsetatik

Uztailaren 4an, zapatua, Kubako Trio Ensueño taldeak emanaldia egingo du Berango Antzokian. Hitzordua 19:00etan ipini dute, sarrera doan. Los Panchos talde mexikarraren abestiak kantatuko dituzte musikari kubatarrek. Armando Saldivar Varelak (lehenengo ahotsa eta baxua), Irving Cetz Pachecok (bigarren ahotsa eta re-kintoa) eta Diego Cocomek (hirugarren ahotsa eta gitarra) osatzen dute Trio Ensueño hirukotea. Mexikoko Yucatan inguruko troba-generoa jorratzen dute. ◀





Andoni Egaña, Jon Maia, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Alaia Martin, Jone Uria, Fredi Paia eta Xabi Paya punta-puntako bertsolariek kantatuko dute.

Bertso Jaialdi Mundiala

Udako maratolari jarraituz, hilaren 8an egundoko bertso-saioa egingo dute Algortako Bihotz Alai plazan.

Algortako Bertsolari Eskolak 35 urte bete ditu aurten, eta hori ospatzeko ekitaldiak antolatzen dabilta urte osoan. Udaren etorreragaz batera, biderkatu egiten dira saioak han eta hemen. Azaltzen dutenez, ALBEk urteak daroatza udarako «bertso-menu ikaragarria» eskaintzen, eta aurtengoa «be-

rezia izanik», arrazoiak soberan. Portu Zaharreko Balkoitik balkoirako bertso-saioagaz ekin zioten udako maratolari, Andoni Egaña eta Fredi Paia bertsolariak. Hurrengo saioa Bertso Jaialdi Mundiala izango da, hilaren 8an, iluntzeko 21:00etan Algortako Bihotz Alai plazan. Bertan, bertsolari itzelek abestuko dute: Andoni Egaña, Jon Maia,

Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Alaia Martin, Jone Uria, Fredi Paia eta Xabi Payak. Eurakaz batera, Aitzol de Castro eta Peio Unzurrunzaga ibiliko dira gaiak jartzen. Urtero legez, sekretupean gorde dute saio horretako gai nagusia; baina, «edizioa berezia denez, antzeman daiteke ez dituela entzuleak epel utziko», iragarri dute. Bertso Saio Mundial horretarako sarreara doakoa izango da, plazako lekuak betetzeraino.

Horrez gainera, Getxon zein Uribe Kosta eskualde osoko herrietan «nahi beste formatutan» eskainiko dituzte bertso-saioak.

Urteurren arrakastatsua

ALBEren 35. urteurrena ospatzeko orain arte egin dituzten ekitaldiak «benetan arrakastatsua» izan direla diote bertso-eskolakoek: ABRA sariketaren edizio bereziak orain arteko txapeldunak batu zituen; eta Bertso-afari tematikoan Jon Maia eta Maialen Lujanbiok atzerako bidaia egin zuten 80. hamarkadara. Bada, orain egingo diren saioak gehituko zaizkio urteurreneko ekitaldien zerrendari, «eta urte bukaerara hurreratu ahala, aurreratu dutenez, beste ekitaldi garrantzitsu bi izango dira: bata, bertsoa, musika eta dantza batuko dituen jaialdia, irailaren bukaeran; bestea, urteurreneko gala handia, abenduan». ◀



Dantza garaikidea, zumba, sevillanak eta tangoa ikasi ahal izango dituzte, besteak beste. © DANCE GM

Umeentzako eta helduentzako dantza-ikastaroak, Erandion

Astrabuduko Dance GM dantza-akademikak umeentzako udako ikastaroak egingo ditu uztailaren 13tik 24ra bitartean; bertan, *show dance*, dantza garaikidea, *zumba* eta sevillanak behar bezala dantzatzeko ikasi ahal izango dute etxeko txikienek.

Helduek ere dantzan egiteko ikastaro trinkoak egiteko aukera izango dute, arratsaldez. Datoren arabera, honako dantzak ikasi ahal izango

dira: uztailaren 6tik 9ra, *zumba*, sevillanak eta saltsa; uztailaren 13tik 16ra, seme-alabakaz dantzatu, yoga eta areto-dantzak; eta uztailaren 20tik 23ra, *capoeira*, *bachata*-tangoa eta *kizomba*. Kurtso bakoitza 45 euroan egin ahal izango da. Kurtso bi eginez gero, berriz, 80 euro izango da prezioa, eta hirurak eginez gero, 105 euro. ◀

info+: www.dancegm.com
harremanetarako: 679 480 670

Kaleko antzerki eta artisten jaialdiaz gozatzeko aukera dago Bilbon, hilaren 4ra arte

Aurrera darrai Bilboko Kalealdiak. Uztailaren 4ra arte luzatuko da Kaleko Antzerki eta Arteen Jaialdi horren hamaseigarren ekitaldia, eta ikuskizunek iraun bitartean, kaleko arte eszenikoen nazioarteko panoraman lehen mailako 27 konpainiaren azken proposamenak batuko ditu. Guztira, 70 emanaldiz gozatzeko aukera egongo da (alboko zutabearen horietako batzuk daude), Bilboko Zazpi Kaleen inguruan ipinitako agertokietan, Arbieta kalean, eta aurten, lehengo aldiz, Casilda Iturrizar parkean jarritako karpa handian. Ohi den legez, ikuskizun guztiak doakoak izango dira, karpa horretan izango diren emanaldiak izan ezik, horiek ikusteko 2 euro pagatu beharra egongo da.

Jaialdian parte hartzen duten 27 konpainietatik, 7 Bizkai, Araba eta Gipuzkoakoak dira; Espainia, Frantzia, Belgika, Italia, Japonia eta Kenyakoak dira beste guztiak. ◀

info+: www.bilbokokalealdia.com

Uztailak 2, eguna

12:00 Dromosofista, Areatzan.
17:30 Pez Limbo, Euskal Museoa.
18:00 Dromosofista, Areatzan.
18:30 Cie Du Fardeu, Areatzako kaian.
19:30 Markeliñe, Areatzan.
20:30 Joan Catala, Plaza Barrian.
00:00 Animal Religion, Arriaga ondoan.

Uztailak 3, barikua

12:30 Pez Limbo, Euskal Museoa.
18:00 Afro Jungle Jeegs, Plaza Barrian.
18:45 Cie L'Arbre À Vache, Arriaga ondoan.
23:15 Toni Gutierrez, Endika Salazar, Ortz eta Estropicio, Arriaga plazan.
24:00 Deabru Beltza & Les Commandos Percu, Areatzako zubian eta kaian.

Uztailak 4, zapatua

12:00 Cie Bitonio, Plaza Barrian.
18:00 CIE 3.6/3.4, Areatzan.
19:15 Haatik dantza-konpainia, Areatzan.
19:45 Zanguango teatro, Santiago plazan.
21:30 Cie Bitonio, Plaza Barrian.
22:15 Haatik dantza-konpainia, Areatzan.
22:45 La Famille Goldini, Arriaga plaza.

«Umeek iritzia emateko eskubide osoa daukate»

Francesco Tonucci Frato (Fano, 1940) pentsalari, psikopedagogo eta marrazkilari italiarrak parte hartu zuen Leioako Herri Laborategiak antolatutako UmHerri15 jardunaldietan, ekainaren 25etik 28ra. Tonuccik asmatu zuen 1991n Umeen Hiria kontzeptua. Umeek hirien gobernuan parte hartu ahal dutela uste du, eta entzun egin behar zaiela zer duten esateko. Era berean, umeen autonomia indartu beharra dagoelako tesiagaz bat egiten du pentsalari italiarrak.



KEPA UGARTE MARTIARENA

Umeen Hiria sortzeko bidean, aurrerapausoak ematen dabilta Leioan?

Nik esango nuke baietz. Leioako Herri Laborategiak antolatutako jardunaldietan, aukera eduki nuen Mari Carmen Urbietta alkateagaz luze eta zabal berba egiteko, eta berak esan zidanez, udalerria ikusteko modua erabat aldatu du, umeakaz elkarlanean jardunez. Horrek esan gura du ikuspuntua aldatzen lagun diezaguketela neska-mutilek, euren iritzia eman. Eta horri oso interesgarria derizot.

Bestalde, erabat liluratu ninduen Udalak egin gura duen Osasunaren Parkeak. Berez, umeentzako gunea izango da; eta hala ere, parkerako ideiak ematerako orduan, txikiak buruan eduki zituzten bizilagun denak. Harrigarria!

Leioan ibilbide egokia egiten dabiltzalakoan nago. Urbietta andreak aitortu zidan ez zaiola erraza egiten umeakaz lan egitea. Eta, nire ustez, horrela izan behar du. Umeakaz lan egitea zirrargarria iruditzen zaien agintariak beldurra ematen didate. Dibertigarri suertatzen bada, zerbait txarto egiten gabiltzalako seinale; txikiakaz lan egitea zaila delako, eta normalean helduoi kostatzen zaigulako eskatzen dituzten gauzak betetzea.

Gauzak ez dira horrela egin orain arte.

Helduok hamarkadak daramatzagu hiriak bakar-bakarrik geure neurrien eta beharren arabera eraikitzen; kotxea da botere-adierazpen nagusia, helduok

garelako autoak gida ditzakegun bakarrak. Umeek, agureek, elbarriek, behartsuek... ezin dute ibilgailurik gidatu. Ondorioz, oinezkoari, oro har, herritar denei garrantzia eman beharrean, guk «gizon langilea» berbakaz definitzen ditugun horiei begiratzat antolatzen dira gaur egungo hiriak.

Zer helburu daukate ematen dituzun berbaldiek?

Arima bera daukaten eremu bi jorratu ohi ditut: hezkuntza edo eskola, eta Haurren Hiria. Funtsean,

“**Helduok hamarkadak daramatzagu hiriak bakar-bakarrik geure neurrien eta beharren arabera antolatzen**”

umeak erabakiak hartzeko eskumena daukatela, eta, hortaz, protagonista izan behar dutela aitortzean dago gakoia; Haurren Hiria da horren adierazpen nagusia. Berbaldi eta jardunaldien bitartez, udalerriak eta hiriak gobernatzeko proposamen berri bat aurkeztu gura diet agintariari, eta, bereziki, alkateari.

Beste alde batetik, herri bakoitzean proiektu hori bultzatzeko lan egingo duten pertsonak trebatu ohi

ditugu, ikastaroen bitartez. Sentsibiltate berria gartzen lagunduko dieten estimuluak eta elementuak eskura jartzen dizkiegu. Umei entzuten ikastea da helburua.


Nondik dator Haurren Hiriaren ideia?

1991n idatzi nuen *La solitudine del bambino* (Haurren bakardadea) izenburuko liburua. Batetik, Italian ohikoa zen senar-emazteek seme-alaba bakarra edukitzea; ondorioz, umeek ez zeukaten anai-arreben konpainiarik. Hori dena askoz larriagoa zen neska-mutirik ezin zirelako etxetik irten: aita-amak beldur ziren zer edo zer gertatuko ote zitzairen. Bakardade hori nolabait gainditzeko, ikastaroetara (musika, dantza...) erosten zituzten seme-alabak, edota jostailuak erosten zizkieten.

Umeak sufritzen zebiltzan isolamendu egoera hori apurtzeko, Fanoko, nire jaioterriko, alkateagaz egin nuen berba: herriak aldaketak behar zituen, aita-amek umei kalera irteten utz ziezaieten. Bertan sortu zen neska-mutirik esateko zer daukaten entzuteko ideia, baita hiriaren gobernuan txikien parte-hartze aktiboa ahalbidetzeko ideia ere.

Legeak berak aitortzen ditu umeen eskubide horiek, ezta?

Urte bi lehenago, 1989an, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena onartu zuen Nazio Batuen Erakundeak (NBE). Agiri horren 12. artikuluan jasotzen



denez, umeek iritzia emateko eskubidea daukate, eurengan eragina eduki dezaketen erabakiak hartzen diren bakoitzean. Akordioak zehazten duenez, kontuan hartu beharrekoa da euren iritzia.

Mundu osoko helduek konpromiso-maila itzela hartu zuten orduan, non eta demokraziarako sakratua den erakunde batean, Nazio Batuen Erakunde. Orduetik, baina, ez da ezertxo ere egin.

Proiektuaren ardatzak bi dira: umeei entzutea, eta autonomia umei bueltatzea (etxetik irten daitezen, lagunak egon daitezten, hiria «bizi» dezaitezten...). Gainera, hori guztia ahalbidetzea ez dagokie bakarrik alkateei, heldu denei baino.

Umeen begietatik begiratu beharko genukeela esaten duzu.

Janusz Korczak mediku poloniarra (1878-1942) esaten zuen legez, zaila da. «Gaitza dela esaten didazu euren mailara jaitsi behar duzulako», gaineratzen zuen benetako izena Henryk Goldszmit zeukan pediatria hark. Korczaken ustez, hori zen akatsa: «umeak konprenitu ahal izateko, hanka-puntetan altxatu behar duzu euren mailara heltzeraino», esaten zuen. Bere umezurtz-etxeko neska-mutilakaz batera hil zuten naziek, gas-ganberan.

Umeak babestu gura ditugula ere esaten duzu.

Janusz Korczak ezizena zeukan pediatria poloniar hark ondokoa esaten zuen 30eko hamarkadan, ga-

rai hartako amez kezaka: «hilko direlako beldur zarete, eta ez diezue bizitzen ere uzten». Egundoko esaldia, ezta? Garai hartan, oso altua zen heriotzatasua umeen artean. Gaur egun, ordea, ia nabari ezina da. Baina, XXI. mendean ere, gure seme-alabei ez diegu bizitzen uzten. Umeak babesteko joera horrek agerian uzten du umeengan daukagun mesfidantza. Ez dago zalantzarik: maite ditugu; baina hala bada, ez genuke eurengan konfiantza handiagoa eduki behar? Ez genieke kalera irteteko askatasun handia-

“ Gure seme-alabei ez diegu bizitzen uzten. Umeak babesteko joera horrek agerian uzten du umeengan daukagun mesfidantza ”

goa eman behar? Kalera irteten uzteak ez du esan gura bueltatuko ez direnik, edo euren burua zainduko ez dutenik. Alderantziz, euren garapenerako oinarrikoak diren esperientziak bizi izango dituzte.

Haurren Hiria abian da beste herrialde batzuetan.

Latinoamerikako hainbat herrialdeetan esperientzia interesgarriak aurki ditzakegu; besteak beste, Ko-

lonbian, Mexikon, Perun, Txilen, Uruguain... gartzan dabilta Haurren Hiria. Orain dela gutxi, Libanoko hainbat hiri ere sartu dira egitasmoan. Hala ere, kontu handiz ibili behar dugu, ezin dugulako hartu proiektu zurrun eta ortodoxotzat. Filosofia orokor bat da, eta oinarri gutxi batzuk ditu. Berbarako, umea gai da erabakiak hartzeko eta iritzia emateko; umea zaindu egin behar dugu umeak bere buruarengan konfiantza eduki arte; entzuteko betebeharra dugu... Horiek denak hiri ezberdinetan aplikatuta, proposamen eta esperientzia ugari aterako zaizkigu. Aberasgarria, benetan! Eta gainontzeko hiriekin parteka daitezke proposamen eta esperientzia horiek.

Umeen laguntzagaz konpondu diren arazoan adibide zehatzen bat aipatuko zeniguke?

Horren gainean galdetzen didatenean, Pontevedraz egiten dut berba gehienetan. Orain dela 12 edo 14 urte, ez dut ondo gogoratzen, nire berbaldi batera etorri zen Miguel Anxo Fernandez Lores BNGko alkatea, eta, berak dioenez, konbentzitu egin nuen. Udal agintariei, nagusiki, hirien lehentasunak aldatzea proposatu ohi diet. Eurek, ostera, proiektua gogoko dutela esan arren, bizpahiru urte itxaron beharra dagoela esaten didate, trafikoaren arazoa konpondu arte. Denbora hori igarota, ez dute ezertxo ere konpontzen. Eta zergatik ez horri guztiari buelta eman?

Zelan eman dakioke buelta horri denari?

Pontevedran egin zuten, hiria umeentzat moldatzeko grinak bultzatuta. Lehenengo eta behin, kaleak aztertu zituzten; 9 metroko zabalera zeukaten, eta, horietatik, 6 metro ibilgailuentzat ziren. Albo bakoitzean 1,5 metro baino ez zeuzkaten oinezkoek, kontuan hartu barik hiri-altzariak (paperontziak, eserlekuak...) espaloietan jartzen dituztela. Ondorioz, bata bestearen atzean, ilaran, joan behar izaten zuten oinezkoek. Horrek esan gura du ez dutela aurreikusitakoa jendea paseoan ibil daitekeenik.

Baina, oinezkoari lehentasuna emanda, ondorioztatu zuten aterkia zabalik zeroaten pertsona bik 2,5 metroko espaloia behar zutela (Pontevedran ez da batera arraroa euria egitea); hiri-altzariak kontuan hartuta, 3 metro, albo bakoitzeko. Ibilgailuentzat utzi zituzten erdian geratzen ziren 3 metroak: noranzko bakarrek errepidea, eta aparkatzeko leku barik.

Espaloietako oztopo arkitektonikoak kentzeko erlan egin dute, ezta?

Lotsagarria da zer egiten duten gurgildun aulkian doazen elbarriakaz eta adineko pertsonakaz. Hiri eta herri askotan espaloia errepidearen maila bereira jaisten dute, oinezkoek zebra-bideetatik igarotzea errazago edukiko dutelakoan. Espaloia bide zuzena izan beharrean, makina bat malda jartzen dute. Alderantziz egin beharko lukete.

Oinezkoen bideak edo espaloiak gorabehera bako bidea izan behar duela onartuz gero, zebra-bideetan errepidea igo beharko litzateke espaloien mailara. Ibilgailuek motorra daukate desnibela gainditu ahal izateko... Hori horrela eginda, kotxeen gehieneko abiadura 30 kilometro ordukoa izatea lortu zuten Pontevedra osoan. Estatistikei begiratuta, istripuetan bi oinezkoetatik bat hiltzen da, 50 kilometro orduko muga daukaten hirietan. 20 oinezkoetatik bat hiltzen da, ostera, gehieneko abiadura 30 kilometro ordura jaitsita. Pontevedrara itzulita, azken hiru urtean ez da oinezkorik hil istripuan. ◀



Getxok eta Arenasek erakustaldi ederra eman dute. AMAIA TXINTXURRETA - GOIENA.EUS / HIRUKA

Golen bidez, historia egin dute Arenas eta Getxo futbol-taldeek

Jon Perez «Bolo» entrenatzaileak bueltan ekarri du talde historikoa Bigarren B Mailara. 15 hilabetean lortu du; klubari 35 urte kostatu zitzaion. Javier Clementeren balentria gairatu du: 1976an 3.era igo zuen taldea.



Jon Andoni Perez Alonso «Bolo» iazko martxoaren 18an heldu zen Arenaseko lehen taldearen aldagelara; giroa oso nahasia zen orduan. Entrenatzaile izendatu zuten Perez Ohorezko Mailako gazteen teknikaria, zuzendaritzak Javier Gonzalez Etxebarria bat-batean kaleratu ostean. Liga amaitzeko 8 partida falta zirela, Gonzalezek gidatzen zuen taldea bigarrena zen taulan, eta play-offetan sartzeko aukera gehienak zituen. Halere, liderra zen Leioaren aurka galdu ostean, zuzendaritzak konfiantza erretiratu zion Gonzalezi, «jokalari onak izan arren, talde bat osatzea lortu ez» zuelakoan. Handik bi hilera, play-offa

jokatzeo aukera bermatu zuen «Bolo»-k, baina orain dela urte bi Celta Bren aurka gertatu zen legez, ez zen Bigarren B Mailara heldu, Trival Vanderasek itxi ziolako bidea.

Hirugarrenean, bai!

Azken urte bietan izan da hori. Atsotitzak dioen legez, «sagua harrapatze-ko hiru salto egin behar ditu katuak». Aurten, Perezek aukera izan du taldea bere modura lantzeko. Anton Olondo, Markel Robles, Alain Yartu, Gaizka Bergara, Ibon Diez, Julen Huidobro eta Ibai Salvadorregaz indartu du hamaiakoa. Denboraldiaren aurretik lagunartekoetan estropezu batzuk izan os-

tean, ikasturtea garaipenez garaipen abiatu zuten. Erritmoa hartuta, taularen buruan izan dira liga osoan, Portugalete eta Gernika hobeak izan arren. Play-offetan berriro ere, bihotzekoa jotzeko lehen fasea izan zuten Oviedo Bren aurka, sailkatzeo luzapena eta guzti behar izan baitzuten. 1.200 zalek betetako Gobela futbol-zelaiari jokatu zen promozioaren azken partida, zapatuan; eta bertan, erabateko nagusitasuna agertu zioten aretarrek SD Logroñesi. Epailak Aitor Ramosi gorria erakutsi arren, 38. minutuan Javi Lopezen golak algaraz bete zituen hamailak. Bigarren zatian, Aranbarrik partida erabakita utzi zuen, 47. eta

48. minutuan gol bana sartuz. Halere, errioxarrak azken unera arte ahalegin- du ziren: Mario Leonek 3-1 sartu zuen 63.ean, buruz. Aranbarrik hurrengo mi- nutuan eman zion zegokion erantzuna. Peñak SD Logroñesi eman zion azken gola, eta 4-2 amaitu zen partida. Pasa den astelehenean, Getxoko Udalak har- rera egin zion gorri-beltzei; klubak, ber- riz, Gobela handitzea edo futbol-zelai zabalago bat uztea eskatu zuen.

Getxo Hirugarren Mailan

Arenasen igoerak Getxo Hirugarrenean goratzea ekarri du, nahiz eta Jon More- noren mutilek Portugalete edo Gerni- kagaz ere igoko ziren. ◀

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

guru izanez gero,
etsera eroango dizugu
egunkaria!!!

Algortako Etorbidea 78 - Tf. 94 491 27 34

PINTXO POTE
OSTEGUNETAN
12:00 ETATIK
15:00ak ARTE

Portu Zaharra Bar

TABERNA *Unai* JATETXEA

XLGORTAKO ETORBIDEA, 96
48991 GETXO (BIZKAIA)
TELF. 944661661
TABERNAKUNKI@HOTMAIL.COM

Pakea Bela Getxo Eskola aurrera



Irailaren 11n amaituko dira udako jarduerak. © PAKEA BELA GETXO ESKOLA

Pakea Bela Getxo Eskolak sortutako Optimist taldea lehiatzen hasi da inguruko estropadetan. Denboraldiaren hasieratik, 8 eta 15 urte bitarteko 18 neska-mutil trebatu dituzte: estropada egiteko teknikak garatu dituzte, oinarriko mailatik abiatuta. Entrenamenduen denboraldia hiru hiruhilekotan banatu dute urritik ekainera, eta ezarritako hainbat helburu erdietsiz aurrera egin dute ikasleek.

Pakea Bela Getxo Eskolako kapitain Unai Basurko oso pozik dago Optimist taldea sortu izateagatik eta umeez egin duten ibilbideagatik. Gainera, kirol-modalitate horrek berezko dituen balioak berenganatuz doaz Pa-

kea Taldeko kideak, eta hartu-emanak dituzte itsas inguruneagaz.

Ikastaroak eta udako jarduerak

Pakea Bela Getxo Eskolak udako denboraldiari ekin dio, 8 urtetik aurrerakoek ikastaroak eta esperientziak eskainiz. Maila denetan, tailerrek 20 orduko iraupena izango dute, astelehenetik barikura, 10:00etatik 14:00etara, eta 15:30etik 19:30era. Euskaraz, ingelesez eta gaztelaniaz eskaintzen dituzte ikastaroak. Bela-ikastaroez gainera, aisialdi-taldeak ere hartzen dituzte, hainbat dinamika egiteko. Urtebetez «piratak» ere antolatzen dituzte. Iaz, 1.500 gazte ibili ziren. ◀

info+: info@pakeabizkaia.com / 944 916 632

Espainiako Surf Txapelketa lortu du Canalesek

Leticia Canales 20 urteko surflari sopoloztarrak urrezkoa lortu zuen Espainiako Surf Txapelketaren maila nagusian, aurreko asteko eguaztenean. Proba Ferrol hiriko (Galizia) Doniños hondartzan jokatu zen. Sara Urresti herrikidea, berriz, bigarren geratu zen 14 urte azpiko proban. Leticia Canalesek Maddi Aizpurua gipuzkoarra hartu zuen mendean finalean, Marcela Machado kanariarra eta Isabel Gundin galiziarra atzean utzita. Bere aldetik, Urrestik ezin izan zuen Janire Gonzalez gipuzkoarra berdindu. Canalesen helburua Europako Txapelketa da. ◀

Natxo Gonzalez nagusitu da Portugalen

Natxo Gonzalez Iglesias 19 urteko surflari plentziarrak Prozis Pro Junior saria irabazi zuen pasa den zapatuan. Plentziarra sei saiotan nagusitu zen jarraian, Espinho herriko Prai de Baia hondartzako olatu txikietan, Portugalgo iparraldean. Europako Gazte Tourreko sailkapenerako 1.000 puntu batu zituen Gonzalezek. Emakumezkoetan, irabazlea Ariane Ochoa bilbotarra izan zen. Gonzalezen ustez, «hondartza horrek zerbait du; ondo sentiarazten nau; magikoa da, maitasuna hartzen diezun taulak legez». Iaz, bigarren geratu zen. ◀



Bizkaiko Bela Txapelketan, kantabriarrak eta gipuzkoarrak nagusitu ziren, pasa den aste akabuan, Abran. Gurutzontzietan, Jose Maria Torcidaren Salem-ek irabazi zuen. J-80 kategorian, berriz, Mikel Vazquezek *Gold Sailing EKP* izan zen yaterik azkarrena.

© ABRAKO ITSAS ERREGE KLUBA

Bila zenbiltzan marka guztietako tailerra



10W40 olio + filtroa aldatzea

39'99 €* BEZa eta eskulana barne.



motrio pneumatikoa

175/65 R14 82T

49€* -an

*Prezio horiek kartarrean 5 litroa arteko edukiera duten ibilgailuentzat dira. Ez dago sartuta filtroaren prezioa. Eskaintzak 2015/09/30era arte iraungo du eta/edo izakinak agortu arte, lehenengo gertatzen dena.

*Pneumatiko 1 aldatzearen azken prezioa. Muntaketa, prekatzea eta hondakinaren kudeketa-kostua (EO 7519/2005) ez daude sartuta (EO 1619/2005). Eskaintzak 2015/09/30era arte iraungo du, etariko izakinak agortu arte, lehenengo gertatzen dena.



Tutallermotrio
Garantía y Compromiso

Patrocinador oficial de la Liga Nacional de Fútbol Sala LNF5

motrio Algorta – Arriluce tailerrak

Errotatxu industrialdea, 4. pabilioia. 48993 ALGORTA - BIZKAIA

Tel.: 94 431 91 05 / 669 37 99 31

E-maila: algorta@talleres.motrio.es

www.motrioalgorta.es

Ordutegia, astelehenetik ostiralera: 09:00 - 13:00 eta 15:00 - 19:00



Gutierrez eta Castroviejo, ederto



Castroviejo, Espainiako maillotagaz, podiumean. © ESPAINIAKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOA

Sheyla Gutierrez Lointek talde sopoloztarreko txirrindulari errioxarra izan zen 23 urte azpiko Espainiako txapelketa, pasa den barikuan, Caceresen, erlojuaren arteko proban. Sailkapen orokorreko bigarren emakumea izan zen, gainera; Anna Sanchis valentziarrak menpean hartu baitzuen. Jonathan Castroviejo Movistar taldeko kide getxoztarrak ere erlojuaren aurkako txapelketa lortu zuen, 2013an legez.

Gutierrez

Errioxarrak 37 minutu eta 20 segundo behar izan zituen 26 kilometroko zirkuitua osatzeko, Sanchisek baino 49 segundo gehiago. Gutierrezek adierazi

zuenez, «denbora ona egin dut, nahiz eta akaburako indarrak gorde ditudan, arazotsuena zelako. Baina dena eman gura izan dudanean, zaila izan da, eta ezin! Annaren garaipenari ezin diot bainarik jarri: hobe izan da».

Castroviejo

Itzubaltzetarrak 55 minutu eta 35 segundo eman zituen 45,6 kilometroko zirkuituan. Luis Leon Sanchez faboritoa gainditu zuten berak zein Gorka Izagirre eta Jesus Herrada taldekideek. Hortaz, podiuma osatu zuten Movistarreko hirurek. Castroviejok azaldu zuenez, «orain dela urte bi legez, Frantziako Tourra da denboraldiaren helburu nagusia». ◀

Linazak eta Gordobilek entrenatuko dute Leioan

Patrik Guerra eta David Movilla Leioako Emakumeak eta Leioa taldeen entrenatzaileak ordezkatzeko, Sarrienaokoe konfiantza jarri dute Egoitz Linaza eta Igor Gordobil teknikoengan. Linazak Murtzian eman ditu azken lau urteak Espainiako Bigarren Mailako Alquerias taldea entre-

natzen eta bertako futbol selekzioaren entrenatzaile estrukturan. Gordobil arrasatearra Elgobairren izan zen entrenatzaile bi denboralditan, Hirugarren Mailan, Aretxabaleta kategoria horretarako igo ondoren. Azkenik, Ane Etxebarriak oinarri-futbola kordinatuko du. ◀



Pasa den astelehenean aurkeztu zuten Igor Gordobil.

Herri Torrontegi, berriro ere moto gainean

Lehiaketarako lan-jantzia kendu zuenetik 19 urte igaro direnean, Herri Torrontegi Gorlizko moto-pilotu mitikoa Jerezko zirkuituan lehiatu zen, pasa den ekainaren 19tik 21era, Kondairen Lasterketan. Torrontegik 125 zentilitroko kategorian parte hartu zuen, jubilatua aurreko lan-jantzia eta Honda motoa berreskuratuta. Nahiz eta 48 urte izan, trebezia mantentzen duela erakutsi zuen motor-gidari beterranoak: podiumean sartu zen. «Bizitza osoan motoaren gainean bizi dudana unerik berezietako bat izan da», aitortu zuen Torrontegik. ◀

Armintzak irabazi du Herriarteko Txapelketa

Armintza 2-1 nagusitu zen, zapatuan Zornotzako udal pilotalekuan jokatu zen Bizkaiko Herriarteko Erreminta Txapelketaren 40. edizioan. Armintzarrek sailkapen nagusia, eta helduen eta gazteen kategoriak irabazi zituzten, zallarrei kadeteen txapelak utzita. Kadeteek hasi zuten norgehiagoka: Madariaga eta Zubiaur uribekostarrek 28-30 galdu zuten, Muntean eta Anguloren aurka. Gazteak berdinketa heldu zen, Unda eta Lopezi esker, Bustillo eta Diaz 35-23 irabazita. Orueta eta Mendizabalek 40-29 hartu zituzten mendean zallarrak. ◀

Getxo Kirolak-ek sano handitu du sareko eragina

Getxoztarren kirol-informazioa hamar aldiz handitu da sare sozialetan, #Getxokirolak traolaren eraginez; hala jakinarazi du Getxo Kirolak Udalak. Komunikazio-kanpaina parte hartu dute Getxo Kirolak udal erakundeak, 200 lagunek eta 50 klubek baino gehiagok. Emaitei dagokienez, Twitter izan da gehien erabili den sarea, eta bertan 20.000 erabiltzaile potentzial edukizetik milioi batera pasatu dira. 400 erabiltzailek 3.500 txio bidali dituzte #Getxokirolak traolagaz, eta 2.700.000 aldiz bisitaratu dira mezu horiek. ◀

Sergio de Julian, urpeko arrantzale onena

Cressi Team taldeko Sergio de Julian Arriola urduliztarrak irabazi du aste akabuan jokatu den Espainiako Norbanako Urpeko Arrantza Txapelketa. De Julian 74.920 puntugaz nagusitu zen domekan, Algortako Kirol Portuko eta Abrako ur hotzetan. Horretarako, ontziaren patroia Josu San Sebastianen laguntza izan zuen. Atzean utzi zituen Santi Lopez Cid asturiarra, Mario Cañizo kantabriarra eta Munduko txapelketa Xavi Blanco katalana. Zapatuan egindako lehenengo proban, Lopez Cidek irabazi zuen, 20 arrain batuta. ◀

saiazgetaria
HOTELA
Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.siazgetaria.com



KONTXI
ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA
Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!
Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93

Sudokuak

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

		5		3			8	
					8	4		6
			5					9
	6	1						8
			9	6				
	3				2			
	9							3
			8	9		7	4	
1	2		7					

	6		1	8				
	7						3	
	3					4		
							1	3
		5		3				
		7	2		9	5		
			4				9	
2	5			9				
	4	1		7		2		

Soluzioak

5	6	9	3	4	7	8	2	1
3	4	2	7	1	6	8	9	5
8	1	3	5	2	9	7	6	4
4	5	6	2	1	8	3	9	7
1	2	3	7	6	4	5	8	9
2	7	8	9	4	5	3	1	6
8	4	5	6	7	2	1	3	9
6	7	2	1	8	3	4	5	9
2	8	7	9	4	5	3	1	6

8	9	2	5	7	1	4	6
7	4	1	2	3	9	5	6
4	5	8	6	9	2	7	1
2	7	1	6	3	8	5	4
1	3	9	4	7	5	2	8
5	6	4	3	2	1	8	7
9	1	3	8	4	6	7	2
8	7	2	5	3	6	4	1
4	5	6	1	9	8	3	7

9	1	3	8	4	6	7	2	5
8	7	2	5	3	6	4	1	9
4	5	6	1	9	8	3	7	2
2	7	1	6	3	8	5	4	9
1	3	9	4	7	5	2	8	6
5	6	4	3	2	1	8	7	9
9	1	3	8	4	6	7	2	5
8	7	2	5	3	6	4	1	9
4	5	6	1	9	8	3	7	2

3			5		6			
7		4						3
		7		1		9		
8			9					3
		9	2			4		5
					1		6	
1	9					7		
	7	2			8			

Zorion agurrak

Urtebetetzea, ezkontza zein jaiotza...

Bidali zeurea!

publi@hiruka.eus
94 491 13 37



INDAR
BILBO
Baserrikoen partez

Zorionak, Indar! 9 urterekin jarraitu izaten magikoa. Baserrian zein Sopelako olatuetan, ea aste ederra pasatzen duzun. Gora bihotzak!!!



ALAI
ETXEBARRI
Algortako izeko-osabaren partez

Zorionak, Alai! Jadanik, 2 urte jai zinenetik, zein handia egiten ari zaren! Muxu handi bat osaba eta izekoren partez!



LARA ETA ADRIAN
BILBO
Lagunen partez

Gora, ezkonbarriak!! Egun zoragarria igaroko dugu zuekin zapatuan!! Paregabeak zarete; elkarrekin bizitza ederra opa dizuegu. Muxu handi bat!

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Udako beroaren beroaz, sats eginda zaude; lasai, hondartzak dituzu inguruan, bizikleta hartu eta baina zaitez, ondoen duzun hareatzako uretan.



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Herriko jaien gida aurkitu duzu, baina denborarik ez, denetara joateko. Ondo begiratu zer gura duzun, eta joan zaitez ondoen datorkizunera. Gozatu!



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Oporrak dituzu gainean, eta oraindino ez duzu aukeratu nora joan. Kanpora joan, etxean gelditu? Aukeratu laster, oporrik gabe geldituko zara eta!



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Urtebete itxaroten egon ostean, heldu zaizkizu oporrak. Denbora horretan bidaiarik bilatu ez, eta, hegaldi barik gelditu zara daborduko.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Oraindino, ez dituzu azterketak amaitu, eta ingurukoek hondartzan ematen dituzte egunak. Hurrengo urterako gehiago ikasi beharko...



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Leihotik begira, uda giroa sumatu, eta oporrakaz amesten hasi zara... Begiak zabalik, baina, erreality-tatera bueltatu zara, lanera edo ikastera.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Garagardea eta patxarana, beharrezkoa duzu alkohola edatea herriko jaietan ondo pasatzeko? Hala bada, kontuz ibili, eta ez zaitez pasa.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Hondartza ala mendia? Betiko kontua. Oporraldia non igaro, aukeratu behar. Txanpon bat hartu, eta zorteak aukera dezala, busti ala lehorka?



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Beti esaten dizute kontuz ibiltzeko eskatzen duzunagaz, bete daiteke eta; bada, eskatu amesten duzun hori, behin eta berriro!



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Udan oporrik ez baduzu ere, aprobetxatu aste akabuetako egunak, eta egizu bi eguneko txangoa; ez zaitez etxean gelditu, gozatu duzu-eta!



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Uztailleko beroagaz, zer da hobeagorik hondartzatik igarotzea eta bertako tabernatxoan freskagarri hotz bat hartzea baino? Oporretan egotea...



Dantzaz dantza

Goi-Alde dantza-taldea, mende erdiz



Bost hamarkada pasa dira, Erandiogoikoko abade On Marianok Jose Luis Intxaurbe «Kotxelu»-ri dantza-talde bat sortzea esan zionetik. Elizaren laguntzagaz, eta gaur egun barregarri den trabaren bat tarteko, Goi-Alde jaio zen.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA

Abuztuaren 15ean, Andra Mari egunean, 50 urte beteko dira, Intxaurbek Goi-Aldeko dantzariak plazara eroan, eta lehenbiziko aldiz jendaurrean dantzatu zutenetik. Aurretik, hilabeteak eman zituen batutako ume batzuek entseguak eginen. Horretaz, taldeak izan duen eboluzioaz eta gaur Goi-Alde osatzen duten 160 laguneko familia alaiaz luze eta zabal berba egin digute Goio Gredillak (taldean 1966an sartu zen), Pili Altonaga dantzariak eta Sorkunde Goikouria Goi-Aldeko presidentek, hiru-retako gazteenak.

Ziurtasun osoz baieztatu ezin badute ere, Goi-Aldeko beteranoak konbentzita daude Goi-Alde sortu baino lehen beste talde bat bazebilela Erandiogoikoan, Accion Catolicari lotua. Euren ustez, bertan eskarmentua bazuen Jose Luis Intxaurbe «Kotxelu»-k, On Mariano parrokoaren mandatua jaso aurretik. Kontuak kontu, Kotxeluk agindutakoa bete, eta 1965eko Andra Mariaren egunean jaio zen Goi-Alde, hasieran mutil taldeagaz baino ez. Handik hilabete batzuetara, neskak ere hasi ziren dantzan, Itziar Arestiren ardurapean. Bera ere Accion Catolicako taldean ibilitakoa zela uste du Altonagak. Dantza-maisuhoriekatz batera, Javi Intxaurbe ere bazebilen, Kotxeluren anaia, Gredilla oroitzen denez. Bederatzi urte zituen Goio Gredillak, Goi-Aldera batu zenean.

Hasieran, oso dantza gutxi zekizkiten, eta gutxikagutxika konpondu zuten arazo hori; batez ere, Jose Luis Orbe Bilboko txistularia taldera batu zenetik.

Elizaren kontuak

Halere, hasierako urte haietaz, ez zaie anekdotarik falta, garai hartako Eliza Katolikoaren moralaren

«Jaime etxeetara zihoan eta umeei esaten zien: 'entsegura etorriko zara?'. Kanean, haurdunei ere: 'hori, Goi-Alderako'»

zentzu murrizak ia dena egiten baitzuen susmagarri. «Katekesira ez bazindoazen, edo abadeak komulgatzen ikusten ez bazintuen, zigortu eta ez zizun ematen entsegu-gelaren giltza», Gredillak dioenez. Gela txiki bat zuten dantzan egiteko; orain, kalefakzioaren galdara dago han. Oraingo lokala «oso ondo etorri zitzaigun zabaleragatik», gaineratu du. Neskak taldean sartu zirenean, 20 gaztetxok osatzen zuten dantza-taldea. Neskak hiru bat urte nagusiagoak ziren, mutilak baino. Lokal berean dantzatzen zuten, baina txandaka, oraingo umeek legez. Orduan, os-

tera, ez zegoen saio mistorik, orain hainbat dantza ikasteko eta hobetzeko egiten duten moduan. Gainera, debekatuta zeukaten han arropa aldatzea, eta etxetik ekarri behar izaten zituzten zapatak eta jantziak, eta bueltan aldatu. Gaur egun, bertan aldatzen dute arropa, nerabe lotsatiren bat aparte utzita. Baina ohikoa denez, neskek jaso zituzten apaizek haragiaren bekatuei zietelako beldurraren kalteak: «txapinak goraino eroan behar genituen, hankak ikus ez zitezten. Gona, txapinak, pololoak... dena estalita eroan behar genuen. Urte batzuen ostean, hasi ginen txapinak tolestean... Goraino igota izatea oso deserosoa zen mugitzeko, eta dena, gainera, belauna ikus ez zedin», gogora ekarri du Sorkunde Goikouriak, argazki bat eskuan duela: «begira, hemen hanka apur bat ikusten zait», dio barre artean.

Dantza berrien iraultza

Baina taldean, iraultza Jose Luis Orbegaz heldu zen. Berak dantza bat asmatu zuen, Udaberri izenekoa; horixe Aurrezki Kutxak egindako txapelketa batera aurkeztu zuen. Dantza hori Goi-Alden irakatsi zuen, «1970ean edo», Gredillaren ustez. Dantza berriak ikasteko grina eragin zuen horrek gaztetxoan artean, eta, adibidez, Durangaldeko dantzari izeneko dantza ikasteko baliatu zuten. Ohituta zeuden Txorierriko estilora dantzatzen, jautzia atzetik egiten; durangarrek, aldiz, oinak gurutzatuta gorantza egiten zuten salto. Bertoko txakarrinkuari, Durangaldeko txotxongiloa ere gehitu zioten; buelta airean egin ordez, lurrean eginda. Ikasteko gogo hori taldean gazte gehiago sartzeagaz batu zen, «ilusio handia eragiten» zuen. Gainera, garai hartako taldea «nahiko ona» zela uste du Gredillak. Durangarrek legez dan-



tzatu gura zuten, baina ez zuten baliabiderik: «etxez etxe joan ginen aititen txalekoak eskatzen, ez bai-kenuen bat ere». Gainera, Orbegaz batera, dantza mistoak heldu ziren. Lehenengo, berak irakatsitako Udaberri, eta gero, 1972 edo 1973 inguruan, Bilboko Bizkai Talde Batutik ekarritakoak. Sopelan ere, arizpeko, kaixarranka eta beste dantza batzuk irakatsi zizkieten. Hasi ziren taldetik ateratzen, jolas berriak ezagutzen, eta ikasteko kezka izaten. 1976an, ondo zekizkiten Nafarroako hainbat dantza. Euren helburua ikuskizun propioa ematea zen, beste taldeen behar barik. «Orduan, bai, eman genuen jauzia: jantzi berriak lortu; dantza batetik bestera aldatu; dardorduko ez zegoen apaizakaz arazorik; guztiok batera entseguak egiten genituen; batera aldatzen ginen.

«Txapinak goraino eroan behar genituen, hankak ikus ez zitezen; gona, txapinak, pololoak... dena estalita eroan behar genuen»

Ez zegoen arazorik. Bitartean, txikiek hor jarraitzen zuten. Jaime eta Itziar arduratzen ziren haietaz. Jaime etxetara zihoan, eta neska-mutilei esaten zien: «tira, entsegura etorriko zara, ezta?». Berak batu ditu ume gehienak. Eta kalean, emakume haurdunen bat ikusiz gero, esaten zion: «hori, Goi-Alderako!». Urte batzuk beranduago, Erandioigoikoko dantza-taldearen ibilbidea markatu duen beste pertsona bat ezagutu zuten: Ion Beitia. Beitia Olaeta ballet-konpainiaren lehenengo dantzaria izan zen, AEBetan egondakoa. Leioara etorri zen bizitzera, eta akade-

mia bat jartzera. Beragaz ikasi zituzten Zuberoako dantzak. Oso ariketa «gogorra» izan zela dute gogoan hiru dantzariak; asko ikasi zuten. Baina Beitia-rikiko harremanak tira-birak ere izan zituen. Ikuskizun bat prestatzen zebilen, Espainia mailako bira egiteko, eta Goi-Aldeko hainbat dantzari eroan gura zituen. Bolada batez, harremana apurtu zuten beragaz. Baina handik hilabete batzuetara, Beitia-ri eskatu zioten Behe Nafarroako dantzak irakasteko, eta berak, baietz. Berrito ere, asko ikasi, eta gorputzagaz asko sufridu zuten erandioztarrek. Behe Nafarroako bigarren eskuko trajeak ere lortu zituzten, Beitia-ri Armintzan emanaldi bat egitearen truke.

Urtemugak eta kanpo irteerak

1980an, Leioako campuseko Areto Nagusia alokatu zuten; oholtza, argi-fokuak, eta ikuskizuna egiteko dena zeukan aretoak. «Ikusgarria izan zen» diote. Eta sinetsi egin beharra dugu, ez baitago egun horretako bideo edo argazki bat bera ere, penaz gogoratzen dutenez. Leioakoaren ostean, Lapurdiko dantzak ikasi zituzten Portugaleteko Ikusgarri taldearen eskutik. Eta handik aurrera, ikuskizun propioa erakutsi zuten hainbat lekutan. 25. urteurrenerako, elkartea osatu behar izan zuten, Udalarir laguntza eskatu ahal izateko. Ordutik da presidente Goikouria, «agiri bat sinarazi zidatenetik». 40. urtemugan, Bizkaiko Dantzari Eguna hartu zuten, eta 45.ean, berriaz, Euskal Herrikoa, «baina ez zen ia inor etorri», eguraldi txarra zela eta. Aurten ere hartu gura zuten, baina Zallan izango da. Kantsolamendurako dute Turkian orain urte batzuk dantzatu izana, balkoietan soldaduak zeudela; edo Hungarian, bainu-jantzian zeuden ur-parkeko publikoaren aurrean. ◀

Dantzaldiak

Uztailak 18, zapatua

19:00 Bilboko Arriaga plazan

Bizkaiko dantzarien Biltzarraren Dantza Plazetan ekimenean.



Uztailak 21, martitena

20:00 Erandioigoikoko Euskadi plazan

Kubako Camagua taldeagaz batera, Erandioiko Udaltzaren Nazioarteko XXIX. Folklore Jaialdian. Lehenengo aldiz egingo da Erandioigoikoan, Goi-Alderir gorazarre eginez.

Abuztuak 8, zapatua

Gasteizen

Andra Maria Zuriaren jaietan dantzatuko dute.

Abuztuak 15, zapatua

Erandioigoikoan

Goi Alderen 50. urtemuga, eta Andra Mari eguna. Eguerdiko mezaren ostean, 12:30-13:00ak aldera, dantza-alardea: 50 urtean Goi-Aldetik pasatutako denek parte hartzeko aukera izango dute. Ondoren, herri-bazkaria izango da, eta 17:30ean, Luhartz taldearen erromeria.

Abuztuak 24, astelehena

Bilboko Plaza Barrian

Bizkaiko dantzarien Biltzarragaz, Aste Nagusian.

Abuztuak 27, eguna

Bilboko Arriaga plazan

Irrintzi konpartzagaz, Aste Nagusian.

Urriak 2, 3 eta 4

Erandioigoikoan

Urteurreneko jaialdia. Zehazteko.



Mundukatuak

Jenny Mair eskbankdarra

«ETB1 jarri, eta uste nuen: zein zaila den gaztelania»

A lgortan bizi da Jenny Mair, senarragaz eta semeagaz. Eskoziaren independentziari buruzko erreferenduma «galdu ostean, jendeak kalean gelditzen ninduen atsekabetuta, baina animoak emateko... oso polita izan zen», dio. Orain 22 urte unibertsitatean zebilela, urtebete atzerrian lan egitera joatea otu zitzaion; asko bidaiatu zuen ordurako, eta hurrengo helmuga onartuko zuen... Ez zuen pentsatutakoa bete, Bulgariak ez baitzion lar erakarri. Estatu espainoletik, ordea, hiru lan-eskaintza heldu zitzaizkion. Madril eta Santanderekoak baztertu, eta Getxo aukeratu zuen «akademiako buruari errugbia gustatzen zitzaiolako, eta ni oso zalea naiz». «Urtebete pasatzera etorri nintzen, baina oso gustura nenbilenez, geratu egin nintzen. Beti diot kalimotxoaren erruz izan zela!». Hasieratik harritu egin zuen bertakoek abegitsu

jokatzek: «esaten denaren kontra, ez zarete itxiak. Interesa agertzen baduzu kultura, ohiturak edota hizkuntza ezagutzeko, jendea poz-pez jartzen da, eta oso jatorra da zugaz». Heldu berri, eta artean hemengo hizkuntzak eza-

“ Getxo aukeratu nuen akademiakoari errugbia gustatzen zitzaiolako; eta neuri ere bai ”

gutu barik, bere ikasle batzuen kua-drillak «adoptatu» zuen, eta haiekaz ateratzen hasi zen. Beste zerbaitek ere zur eta lur utzi zuen: «badirudi egun osoa oihuka ematen duzuela». Sevilla eta Madrildik igaro ostean, ez zaizkio daborduko hain ozenak egiten ahotsak. Heldu zenean, ez zuen euskararen berri: «ETB1 jarri, eta pentsatzen

nuen ‘zein zaila den gaztelania’. Gero, jakin nuen euskara zela, eta lasaitu nintzen». Gaur egun, euskaraz ere auzartzen da. Hormek ere harritu zuten, «graffiti kopuru izugarriagatik».

Eskbank eta Edinburgo

Eskbank oso txikia denez, Edinburgora joatea aholkatzen du Mairrek. Halere, Eskbanketik autoan ordu erdira hondartzara joan daiteke, eta oinez, mendira. Edinburgon ezin daitezke bisitatu barik utzi: gaztelua, errege-jauregia, XVII. mendeko errege-milia, inguruko eraikinak eta itzalitako sumendia. Oinez egin daiteke dena. Udako nazioarteko festibalak musika, antzerkia eta abar hartzen ditu. Bertan ikusi zuen Rowan Atkinson aktorea (*Mister Bean, Sugogorri beltza*) hasi zenean. Halere, «turista larregi» dago. Edateko, gasik gabeko garagardoa eta whiskia aholkatzen ditu. ◀

NOR DA

Nongoa

Eskbank (Midlothian, Eskozia).

Adina

46 urte

Zertan dabil

Ingelesa irakasten du.

Ikasketak

Historia Modernoa eta Nazioarteko Harremanak.

Noiztik Euskal Herrian

1993an heldu zen, 23 urte gaz. «Ezkonduta eta seme batez... ez dago ihesbiderik», dio barre artean; «Betiko geldituko naiz».

NONGOA DA



Herrialdea

Eskozia

Azalera

78.387 km² (ia 4 aldiz Euskal Herria).

Herria

Eskbank, Eskbank & Newbattle udalerrria, Edinburgotik 20 bat kilometrora.

Biztanleria

5.600

Hizkuntzak

Ingelesa, Eskoziako galesa (60.000 hiztun, %1) eta keinu-hizkuntza dira ofizialak. Eskoziera, berriz, ez da ofiziala. Aduitu askok antzinako ingelesaren aldaeratzat jotzen du, antza baitu; Eskandinaviako germanieragaz lotuta dagoela uste dute beste batzuek. Eskoziarren %30k edo %57k egiten dute, ikerketa desberdinen arabera.

Dirua

Libera esterlina, Eskoziako bankuek jaulkia.

HIRUKA Koop. elk.

Helbidea: Martikoena 16, 2. 48991 GETXO
e-Posta: hiruka@hiruka.eus P.-Ku.: 171
Telefonoa: 944 911 337
Erredakzio-burua: Irantzu Sagarminga
Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Iñigo Fernandez de Martikorena, Zuberoa Iturburu
Testuen orrazketa: Iratze Ormatza

Argazkiak: Hodei Torres

Diseinua: Jorje Perez eta Eñaut Etxebarri
Publizitatea: Erika Martinez / Ninbe Landa
Kudeaketa: Ziortza Merino
Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA
Lege Gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95 CC-BY-SA
Ale-kopurua: 8.000 ale



Erakunde laguntzaileak:

